

2015eko MARTXOAREN 25ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA 3 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko martxoaren 25ean, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Gloria Vazquez Herranz and. Irma Domingorena Zapirain and. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn. M <sup>a</sup> Jose Lafuente Grasa and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, zinegotzi hauek hitz egin dute:

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

## GAI-ZERRENDA

### **1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA**

#### **a) 2015eko otsailaren 25ekoa**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### **2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA**

#### **a) Alkatetzaren dekretuak: 2015eko otsailaren 23tik martxoaren 20ra**

Segidan, Alkatetzak 2015eko otsailaren 23tik martxoaren 20ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

#### **b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2015eko otsailaren 20tik martxoaren 13ra**

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarra: 2015eko otsailaren 20tik martxoaren 13ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### **3.- INFORMAZIOA**

#### **a) Finantza eta aurrekontuei buruz: 2014ko 4. hiruhilekoa**

Segidan, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2014ko laugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, Alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

#### **b) Ordainketako batez besteko epeari buruz: 2014ko 1., 2., 3. eta 4. hirulekoak**

Hurrena, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 1., 2., 3. eta 4. hiruhileetako ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, 2014ko Alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

#### **4.- GIZARTE ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA**

Jendarte Politikaren informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

**Lehena.-** Hasierako onespena ematea GIZARTE-ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN aldaketari, II. eranskinaren idazkera berriaren arabera.

IDAZKERA BERRIA

2. eranskina: Garapenarekin sentsibilizatzeko edota hezteko proiektuak Zarauzko Udalberrian bertan

#### **4. Diru-laguntzaren zenbatekoa**

Diru-laguntza hauen banaketa norgehiagoka bidez egingo da.

Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat (edo batzuk) sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa balitz ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, norgehiagokaren prozedurak duen hurrenkera ez da ezarri beharko.

Proiektu bakoitzerako diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da izan 6.000 eurotik gorakoa, ezta kontsignatutako kredituaren % 40tik gorakoa ere.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Hirugarrena.-** Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarrien aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

#### **5.- ZARATA ETA BIBRAZIOEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA**

1997ko abenduaren 18an Udalak PERTSONAK ZARATATIK ETA BIBRAZIOETATIK BABESTEKO UDAL ORDENANTZA onartu zuen.

Geroztik zaratari buruzko legedia aldatu egin da. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretua onartu zen. Dekretu horrek 2 urteko epea eman zuen, zaratari buruzko udal ordenantzak dekretu horretan xedatutakoari egokitzeko.

2014an, Udalak AAC SL aholkularitzari esleitu zion zaraten ordenantza berrikusteko lanen zerbitzu-kontratua. Enpresa esleipenduna eta Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuko teknikariak elkarlanean jardun dira ordenantza berriaren testua idazten.

Udaleri Ereduren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak ordenantza berriaren proposamena eztabaidatu zuen.

Ordenantza aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Hasierako onespena ematea ZARATA ETA BIBRAZIOEI BURUZKO UDAL ORDENANTZARI.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurrean jartzeko tramitea jakinarazteko, iragarki bat argitaratuko da udaletxeko iragarki-taulan, Udalaren web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**Hirugarrena.-** Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantza berria behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da testu osoa.

Indarrean sartzen denean balio gabe geratuko dira udal ordenantza hauek:

- Pertsonak zaratatik eta bibrazioetatik babesteko ordenantza (GAOn 1998ko otsailaren 16an argitaratu zena)
- Ibilgailu motordunen zaratari buruzko ordenantza (GAOn 2001eko abuztuaren 8an argitaratu zena).

Zarauzko zarata eta BIBRAZIOEI buruzko udal ordenantza

## ZARATA ETA BIBRAZIOEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

### I. IZENBURUA: XEDAPEN OROKORRAK

#### 1.- Artikulua. Arrazoia eta Helburua

Ordenantza honek, udal- eskumenen arloan, Zarautz Udalerriko biztanleriaren osasunean edota ingurugiroaren egoera, zarata edo bibrazioengatik kaltetu ditzaketen, jarduera, egoera edo azpiegiturei dagokienez, estatuko zein erkidegoko arategia osatu eta arautzea du helburu.

## **2. Artikulua. Aplikazio- eremua**

1.- Pertsona zein ingurugiroan kalteak eragin ditzaketen edota arriskutsuak izan daitezkeen zarata- iturri guztiak, ordenantza honetan ezartzen dena bete beharko dute. Honako hauek dira zehazki aipatzen direnak:

- Udal- lizentzia, baimena, aurretiko jakinarazpena edo ardura- aitorpena behar dituzten jarduera eta obra guztiak, orokorrean.
- Bide- publikoan egiten diren obrak, makineria, azpiegiturak...
- Udal- eskumeneko bide publikoak.
- Pertsonen arteko eguneroko elkarbizitza oztopatzen duten arrazoirik gabeko edota gizabidearen aurkako jarrerak.

2.- Ordenantzako aginduetatik at, zarata eta kutsadura akustikoaren arloko, estatu edota erkidegoko arategian at geratzen diren ekintza eta azpiegitura guztiak, geratzen dira, baita, udal- eskumenean ez dauden bestelako azpiegiturak ere.

3.- Hiri- antolakuntza proiektuetan eta edozein ekintza eta zerbitzuen antolaketan zarataren eragina arautzeko, udal- eskumeneko arategia eratzerakoan, Udalak, jarduera horiek zarata eta bibrazioen aldetik zer eragin izango dituzten aztertu behar du, modu honetan, adosten diren ebazpenak edota plangintzak, bizi- kalitate mailarik altuenak eta ingurugiroarekiko errespetua bermatuko direla egiaztatuko delarik.

4.- Udal- eskumeneko zerbitzuen eskaintza egiteko baldintza- txostenetan, erabiliko diren garraio eta makineriaren baldintza akustikoak baloratuko dira, eta lan hauetarako erabiliko diren garraio eta makineriaren zarata igorpen- mailen gaineko informazioa luzatzea eskatuko zaie.

5.- Udalak, Ordenantza honetan ezartzen denarekin denbora batez bat ez egitea baimendu dezake, obra jakin batzuegatik edota izaera soziala, politikoa, kulturala erlijiosoa edota antzekoa duten ekintzak ospatzeko. Hala ere, kaltetuta aterako den biztanlerian, eragozpenak ahalik eta gehien murrizteko neurriak adostu beharko ditu, baita biztanleria honi, arategia bertan behera uzte honek iraungo duen epearen gaineko informazioa luzatu ere.

## **3. Artikulua. Eskumenak**

Udal- Gobernuari dagokio, ordenantza betetzen dela bermatzea. Estatu eta erkidegoko arategietan ezartzen denarekin bat eginez, Zarautzko Udaletxeari hurrengo eskumenak dagozkio ere:

- a) Udalaren lurralde-eremuaren barruko area akustikoa edota area akustikoak zedarriztatzea eta onartzea, betiere, udalaren planeamenduan aurreikusitako egungo erabilera oinarri harturik.
- b) Udalaren eskumeneko area akustikoetan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak behin-behinean etetea interes publikoko lanak direla medio, edo udalaren eskumeneko bestelako ekintza sozialak, politikoa, edo kultura-, kirol-, erlijio- edo antzeko ekintzak direla medio
- c) Hots-kutsadurari buruzko udal-ordenantzak prestatzea eta onartzea, bai eta daudenak araudi berrira moldatzea ere
- d) Udalerriko hiri-eremu lasaia izendatzea eta dagozkien akustika zaintzeko planak zehaztea
- e) Beren lurralde-esparruari dagozkien zarata-mapak egin, onartu, berrikusi eta jendaurrean jartzea
- f) Hots-kutsaduraren alorreko ekintza-planak prestatu, onartu, berrikusi eta gauzatzea artikuluko honetako e) idatz-zatian aipatutako zarata-mapa bakoitzeko, eta horri guztiari dagokion informazioa eta parte-hartzeko aukera ematea herritarrei
- g) Eremu akustikoak lehentasunezko ekintza-eremutzat jotzea eta lehentasunezko ekintza-planak zehaztea beren eskumeneko zarata-fokuentzat
- h) Eremu akustikoak babes akustiko bereziko eremutzat edota egoera akustiko bereziko eremutzat jotzea, bai eta dagozkien berariazko neurri zuzentzaileak prestatu, onartu eta gauzatzea ere, eremu horiei lotutako eremuko planaren esparruan, 4.i) eta 5.h) idatz-zatietan aurreikusitako egoeretan izan ezik
- i) Eraikin eta etxebizitzetan kalitate akustikoa betetzen dela egiaztatzea, eraikin horiek erabiltzeko lizentzia edo baimena eman aurretik aplikagarria den araudi autonomikoaren arabera
- j) Koordinazioa bultzatzea udalaren esparruko zarata-fokuen pertsona edo erakunde titularrek abian dituzten eremuko plan akustiko guztien artean
- k) Beren ekintza-esparruaren barruan hots-kutsaduraren arloko araudia betetzen dela kontrolatzea, beharrezko neurri zuzentzaileak har daitezkeen eskatzea, beharrezko neurriak betetzen ez direnean dagozkien mugak adieraztea eta, azkenik, egindako arau-hausteetatik eratorritako zehapen administratiboak jartzea
- l) Udalaren jarduera-lizentzia, baimena, alde aurretiko jakinarazpena edota hura erabiltzeko baimena ematen duen erantzukizuna adierazpena behar duten jarduerak dekretu honetan zehaztutako aginduak betetzen dituztela egiaztatzea; horretarako, foru-aldundien lankidetzat eskatu ahaliko dute beren eskumenak egikaritzean

#### **4. Artikulua. Definizioak**

0 Eranskinean, ordenantza honek jorratzen dituen kontzeptuen definizioak adierazten dira.

#### **5. Artikulua. neurketak egiten tresneriak bete beharreko baldintzak**

1.- Zarataren azterketarako erabiltzen diren neurketa eta kalibrazio tresnak, 1. Mota eta 1. Klasekoak izan behar dira eta entzungarria den soinua neurtzeko tresnen eta kalibragailu- akustikoen gaineko kontrola arautzen duen estatu mailako arauetan ezarritakoarekin bat egin behar dute.

2.- Zortziko bandako edota 1/3 zortzien bandako filtroak behar dituzten zarata- ebaluazio guztietan, erabiltzen diren neurketa- tresnak, UNE-EN 61260 arauan, bere bertsiorik berrienean edota hori ordezkatzeko duen arautegian, 1. Mota / 1. Klaseko tresnentzako ezartzen diren baldintzak berdinak bete behar dituzte.

3.- Neurketaren bitartez bibrazioen azterketa egiten denean, erabiltzen diren tresnek, UNE-EN ISO 8041 arauan, bere bertsiorik berrienean edota hori ordezkatzeko duen arautegian, 1. Mota / 1. Klaseko tresnentzako ezartzen diren baldintzak berdinak bete behar dituzte.

#### **6. Artikulua. Neurketa akustikoak egiteko beharrezko formakuntza mailak**

1.- Ordenantza honetan ezartzen denarekin bat egiten dela bermatzeko eskuduntza duten langileek oinarritzko formakuntza teknikoa izango dute, beti ere, beharrezkoa den mailara egokituz. Helburu honetarako, jarraian oinarritzko formakuntzazko bi maila deskribatzen dira:

1. 1. Maila: Zaintza- neurriak: helburua, ekintza batek, azpiegitura, industria edo zarata- iturri zehatz batek sortutako zarata- maila neurtzea da, denbora eta toki zehatzetan maila- akustikoen gaineko informazioa luzatzeko (II. Eranskina). Neurketa hauek, Udal- agintariak egin ahal izango dituzte.
2. 2. Maila: Egiaztatutako neurketak: Maila honetako neurketak, Akreditazioen entitate Nazionalak (ENAC) entseguetarako Akreditatutako Akustika Laborategiek besterik ezingo dituzte egin. Ikuskapena edo izuna helburu duten neurketek, gaikuntza maila hau izan behar dute.

2.- II. Eranskinean jaso dira gaikuntza maila bakoitzaren neurketarako prozedurak.

#### **7. Artikulua. Eguneko aldiak**

Udalerrian, kalitate akustikoko helburuak betetzen direla aztertzeko, eguna hiru aldi ezberdinetan banatzen da:

- a) Eguna: 7:00etatik 19:00etara.
- b) Arratsaldea: 19:00etatik 23:00etara.
- c) Gaua: 23:00etatik 7:00etara.

#### **8. Artikulua. Obrak**

1.- Bide publikoan zein etxebizitza barruan eraikitzeko, konpontzeko zein botatzeko egin beharreko lanak edo obrak, lan egunetan goizeko 8etatik arratsaldeko 21etara egingo dira, jai egunetan horrelako lanik ezin delarik egin. Hala ere, eta kasu guztietan, auzokideengan erasanik txikiena eragiteko neurriak hartuko dira.

2.- Udalak, aurreko atalean zehaztutako ordutegitik kanpo lanak egiteko ez- ohiko baimenak eskaini ahal izango ditu, beti ere, nahikoa arrazoi egonda, beharra, arriskua, edo bere izaeragatik egunean zehar egin ezin direnak.

3.- Obren iraupena 6 hilabete baino gehiagokoa izango dela aurre ikusten denean, inpaktu akustikoaren ikerketa bat egin behar da, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak erabakitzeko. Eragin akustikoen gaineko ikerketa horrek, neurri zuzentzaileek ekarriko dituzten onura akustikoen azterketa egin behar du, eremu akustikoetan zein erasanari sentsible diren eraikinetan zarata- mailetan eragingo dituzten murrizketak, alegia.

#### **9. Artikulua. Kontzertuak, ikuskizun eta saio bereziak.**

1.- Udal- ordenantza zehatzak ezartzen duena balio gabe utzi gabe, jaietan, bai patronaletan baita tokikoetan edo antzekoetan, ospatzen diren ikuskizun publikoek, kontzentrazioek eta jarduerak egokiak diren baimenak izan behar dituzte eta horiek eskaintzeko, ospakizunetan parte- hartuko ez duten biztanleengan erasan akustikoa ahalik eta txikiena izan dadin, beharrezko ak diren mugaketa eta neurri zuzentzaileak bete behar dira.

2.- Kontzertuen kokapena, zein bozgorailuen kokapena zehazteko, auzokideengan erasan akustikori txikiena eragiteko ezaugarriak kontuan izango dira.

3.- Kontzertuan zehar, zarata- mailak ezin dira 90 dB(A) baino altuagoak izan, maila hau, egoera aztertzeo nahikoa denboran zehar neurtuko da, bozgorailutik 5 m-ko distantziara.

4.- Izaera ofizial berezia, kulturalak, edo interes publiko edo gizarte- interes berezia izateagatik horrela aholkatzen diren jarduerak, Ordenantza honetatik at geratzen dira.

#### **10. Artikulua. beste arrazoi batzuegatik zarata- igorpenen kontrola**

1.- Ordenantza zehatzengatik zuzenduko dira, hau da, ostalaritza egoitzetan terrazen instalazioengatik sortutako zaratak, kara eta deskarga eremuetan, eta bestelako jarduerak sortzen duten zaratak arautzen dituen ordenantzak. Hala eta guztiz ere, bere arautegi zehatzean ezartzen dena balio barik utzi gabe, Alkatetza Dekretuaren bitartez, sortu daitezkeen erasan akustikoak txikitzeo beharrezkoak diren mugaketa edo neurriak adostu ahalko dira.

2.- Arautegi zehatzik ez duten baina erasan akustikoa sortu dezaketen bestelako jarduerak eta udaltzainek horrela egiaztatzen edo arrazoitzen dutenean, falta arintzat hartuko dira eta falta horietarako ordenantza honetan ezartzen diren isunak jarriko dira, beti ere, eragiten duen pertsona edo laguntzaileen aldetik, engainu, arduragabekeria edo omisioa egoten bada. Honako jarduera hauek dira sailkapen honetan sartzen direnak:

- a) Etxe barruan edo esparru komunitarioetan sortzen diren zaratak: gaueko ordutegian egiten diren konpontze-lanak edo altzarien aldaketak, etxe tresnek sortzen duten soinua, etxeo animaliek sortzen dituztenak, oihuak, edo auzokideen atsedena asaldatzen duten zaratek.
- b) Bi minutuz baino epe luzeagoz, soinu- alarmak igortzen dituzten garraio edo etxebizitzaren segurtasun-alarmek.
- c) Tresna piroteknikoaren erabilera (petardoak, koheteak, etabar)

#### **11. Artikulua. Informazioa luzatzea**

Udalak, udalerraren zonakatzeari, zein egin eta onartu diren zarata- mapak, eta ezarriko diren ekintza planak, ingurugiroko arloan informazioa eskura izateko eskubidearekin zerikusia duen eta indarrean dagoen arautegiarekin bat eginez, biztanlegora luzatzen direla bermatu behar du.

## **II. IZENBURUA: EBALUAZIO AKUSTIKOA ETA EKINTZA PLANAK**

#### **12. Artikulua. Zarata- Mapak**

1.- Zarauzko Udalak, Zarauzko udalerraren zarata- mapak egingo ditu, estatu zein erkidegoko arautegian ezarritakoarekin bat eginez, eta egoera bakoitzarentzako ezarritako metodologia jarraituz.

2.- Udalerriko Zarata- Mapa orokorrak, lurraldean, ingurumeneko zarata- iturriek eragiten duten ingurumeneko soinu-mailak aztertzea ahalbidetuko du (urteko batz besteko mailak), kontuan izango diren iturriak honako hauek direlarik: bide- trafikoa, trenbide- trafikoa eta industria- jarduera. Zarauzko Zarata- Maparen egitea, onarketa eta eguneraketa, indarrean dagoen arautegiaren arabera egingo da.

#### **13. Artikulua. Babes Akustiko Berezien Eremuen (BABE) eta Egoera Akustiko Bereziko Eremuen (EABE) Aitorpena. Zonako Plan Akustikoa**

1.- Kalitate akustikoko helburu aplikagarriak betetzen ez dituzten eremu akustikoak, Babes Akustiko Bereziko Eremutat (BABE) hartuko edo aitortuko dira, estatu zein erkidegoko arautegian ezarritakoarekin bat eginez.

2.- Babes bereziko eremu bakoitzean, berezko Zonako planak egingo dira.

3.- Zonako Planean ezarritakoa garatuz eta martxan jarri ostean, bertan zehaztutako neurri zuzentzaileek, eremuan kalitate akustikoko helburuak ez betetzea saihestu ezin izan duten, Babes bereziko Eremu Akustikoa, eskuduntza duen Administrazioak, Egoera Akustiko Bereziko Eremutat (EABE) joko dute. Eremu horretan, epe luzean, kalitate akustikoa hobetzeko eta zehazki, barruko esparruetarako ezarritako kalitate akustikoen helburuekin bat egiteko helburuarekin, neurri zuzentzaile bereziak adostuko dira.

#### **14. Artikulua. Ekintza Planak.**

1.- Zarauzko Udalak, Udalerriko ingurumen akustikoa hobetzeko, Ekintza Plana egitera eta eguneratzera behartuta dago, aplikagarria den estatu edota erkidegoko arautegian ezartzen den metodologia eta hedapenarekin bat eginez.

2.- Ekintza planaren barnean, gehigarri izan daitezkeen beste ezaugarri edo plan batzuk sartu daitezke, adibidez, Zonakako planak eta Lehetasunezko Ekintza- Planak.

3.- Ekintza Plana onartzeko prozedura, indarrean dagoen arautegian ezartzen dena izango da.

### **III. IZENBURUA: KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK ETA ZONAKATZE AKUSTIKOA**

#### **15. Artikulua. Eremu Akustikoak eta Zonakatzea**

1.- Udalak, udalerraren zonakatze akustikoa erabakiko du, lurzorua bere erabileraren izaeraren arabera sailkatuz eta eremu mota bakoitzari, kalitate akustikoko helburu batzuk egokituz, estatu eta erkidegoan indarrean dagon arautegia jarraituz.

2.- Existitzen diren eremu urbanizatuentzako eta eremu naturalentzako ezarritako eta bete beharreko kalitate akustikoko helburuak, kanpoko esparruetarako honako hauek dira:

Non $L_d$ , $L_e$ eta $L_n$ zarata- adierazleak diren, eguna, arratsaldean eta gaueko aldiatarako urteko batz- besteko zarata- mailak.	$L_d$	$L_e$	$L_n$
a) Bizitegi- erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	65	65	55
b) Industria- erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	75	75	65
c) Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	73	73	63
d) c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde- esparru edo sektoreak.	70	70	65
e) Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzorua nagusi diren eta hots- kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo- sektoreetarako zehaztutakoekin.	60	60	50
f) Garraio- azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde- esparru edo- sektoreak. (1)	*	*	*
g) Kutsadura akustikoaren aurreko babes berezia behar duten Natura esparruak	60	60	50

\* Bere Eremuaren mugan, muga konpartitzen duten eremu- motaren arabera izango dira

3.- Barruko esparruetan, kalitate akustikoko helburuak zarata- mailentzako, etxebizitza, osasun- zentro eta hezkuntza edo kultura eraikinetarako , honako hauek dira:

Eraikinaren Erabilera	Esparru mota	Zarata- Adierazleak		
		$L_d$	$L_e$	$L_n$
Etxebizitza	Egoitzak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Osasuna	Egoitzak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Hezkuntza edo kulturala	Gelak	40	40	40
	Ikasgelak	35	35	35

4.- Barruko esparruetan, kalitate akustikoko helburuak zarata- bibrazioentzako, esparru horietan bizigarriak direnean, etxebizitza, osasun- zentro eta hezkuntza edo kultura eraikinetarako , honako hauek dira:

Eraikinaren Erabilera	Bibrazio Adierazlea $L_{aw}$
Etxebizitza	75
Osasuna	72
Hezkuntza edo kulturala	72



5.- Estatu edo Erkidegokoak diren azpiegiturentzako, eskuduntza duten Administrazioek, zortasun akustikoko eremutat aitortzen dituzten zonaldeak, garapen urbanistiko berrientzako, lurralde- antolakuntza tresnetan zein hiri-antolakuntza tresnetan kontuan izango dira.

6.- Behar denean, eremu lasaien, trantsizio- eremu edo natura jatorria duten soinu-erreserben zonakatzeko kontuan izango dira, eta kasu horietan, ez dira berez eremu akustikotzat hartuko, baizik eta zonakatzeko garatzea ahalbidetzen duten tresnatzat.

#### **16. Artikulua. Udal- antolakuntzaren bitartez, kutsadura akustikoa saihestea**

Udalaren antolakuntza orokorrak, udalerraren Zarata- Mapa totala kontuan izango du, garapen urbanistiko berriak mugatzeko orduan. Era berean, Zarauzko udalerrian, kalitate akustikoko helburuak definitzeko, zonakatzeko akustikoaren mapa eguneratuta, kontuan izango du.

#### **17. Artikulua. Garapen urbanistiko berriko eremu eta eraikin berriek bete beharreko baldintzak**

1.- Garapen urbanistiko berria aurre ikusten den eremuetarako, kalifikazio berria barne, tramitazio urbanistiko eta ingurugirokoa egitean, dauden ingurumeneko zarata- iturri guztiak kontuan izaten dituen Eragin Akustikoko Txosten bat aurkeztu beharko da.

2.- Arrazoizko eta interes publikoko ohiz- kanpoko arrazoiak egon ezean, edo lizentzia zonaldea babes akustiko bereziko izan ezean, ezingo da eraikitzeko lizentziarik eskaini, etxebizitza, osasun- zentro, hezkuntza edo kultur- eraikinei, lizentzia eskaintzeko momentuan, kanpoan, hau da, fatxadetan, momentuko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez badira.

3.- Edonola ere, lizentzia eskatzen duen pertsonak, eraikinaren barruan, kalitate akustikoko helburuak betetzen direla frogatu beharko du, DB- HRan ezartzen dena betetzen dela arrazoitzeaz aparte. Udaletxeak, gaiaren arrazoiketako txosten bat egingo du, lizentzia eskaini aurretik.

### **IV. IZENBURUA: SOINU- ITURRIAK**

#### **I. KAPITULUA: JARDUERA BERRIEI EXIJITU AHAL ZAIZKIEN BALDINTZAK**

##### **18. Artikulua Jardueren sailkapena**

1.- Jarduerak, egoitza barnean baimendutako zarata- mailen arabera, honela sailkatzen dira:

<b>Jarduera Mota</b>	<b>Soinu- igorpen mailaren mugaketa dB(A)</b>
Ostalaritzaren zerikusirik ez duten jarduerak, eguneko ordutegian eta soinu tresnarik gabe lan egiten dutenak	≤ 75 dB(A)
Lehen motan aurreikusten ez diren jarduerak, eta bere zarata emisiorako gehienezko barne maila izan dadila	≤ 85 dB(A)
Lehen motan aurreikusten ez diren jarduerak, eta bere zarata emisiorako gehienezko barne maila izan dadila:	≤ 90 dB(A)
Lehen motan aurreikusten ez diren jarduerak, eta bere zarata emisiorako gehienezko barne maila izan dadila:	≤ 95 dB(A)

2.- Aurreko taulan adierazitako mailak, lokal barruan dauden zarata- iturriek 1.5 metroko gutxieneko distantziara sortzen duten mailak dira.

3.- Sailkapena, ezin da, nagusiki industria- jarduera jasotzen duten lurraldeko Area/Sektoreetan aplikatu.

##### **19. Artikulua Aplikazio erregimena**

1.- Udal- baimena behar duten jarduera zein egoitza berriek, atal honetan ezarritako irizpideak edo baldintzak, zuzenean eta nahitaez bete beharko dituzte.

2.- Udal- baimena 2013ko urtarrilaren 1 a baino geroago eskatu duten jarduera edo egoitzak, berritatzeko hartuko edo sailkatuko dira.

3.- Erreforma edo eraldaketak egingo dituzten eta horren ondorioz, ondoko lokaletan, zarata edo bibrazioak eragiteko ahalmena handitu dezaketen jarduerak ere berritatzeko hartuko dira.

4.- 2013ko urtarrilaren 1 a baino lehenagoko jarduerak, ez dira jarduera berriztat hartuko, nahiz eta, igorpen-akustikoko iturri berriak gehitzen dituzten aldaketak egin. Hala ere, igorpen- iturri berri horiek, igorpen eta bibrazio arloetan, hemen ezartzen denarekin bat egin behar dute.

5.- Ostalaritzarekin zerikusirik ez duten eta eguneko ordutegian eta soinu- iturriak erabiltzen ez dituzten jarduerak, ez dira erasan akustikoa sortu dezaketen iturritzat hartuko (soinu- igorpenaren maila 75 dB(A) azpitik mugatuz).

## **20. Artikulua. Jardueri aplikatu beharreko gutxienezko baldintzak**

1.- Akustika- isolamenduak. Honako eskakizun hauek beteko dituzte:

- I. Eranskinetako I1 eta I2 tauletan ezartzen diren isolamenduzko baldintza minimoak beteko dira.
- Fatxada bakoitzak, aireko- zaratari izango dion isolamendu maila, kanpoaldean zarata- mailentzako kalitatezko helburuekin betetzea ahalbidetzen duena izango da, hau I. Eranskinetako F1 eta F2 tauletan adierazten delarik. Horretarako, egoitza bakoitzak duen kategoria edo taldea eta baimendutako lan-ordutegia kontuan izango delarik. Kanpoaldean igorpen- mailak gaindituz gero, barrualdean, igorpen- mailak aipatutako baloreekin bat egin arte murriztuko dira.
- Atal hau, ezin da, nagusiki industria- jarduera jasotzen duten lurraldeko Area/Sektoreetan aplikatu.

2.- Zarata- igorpenaren gehienezko baloreak. Honako eskakizun hauek beteko dituzte:

- Jarduera berriei aplikatuko zaizkien balore maximoak, ordenantza honetako 15. Artikuluan eta I. eranskinetan ezarritakoak dira.
- Igorpen- maila maximoak betetzen direnaren baieztapena, II. Eranskinetako E atalean, zein estatu eta erkidegoko arautegietan adierazten diren prozesuen arabera egingo da.
- Bibrazio- maila dagokienez, jarduera berri batek ere ezingo ditu inola ere ez, I. Eranskinetako J taulan ezarritako bibrazio- maila ( $L_{aw}$ ) maximoak gainditu.

## **21. Artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

1.- Lokalean egokitzapen- obrak eginez gero, proiektuan edo dokumentazioan, teknikari arduradun batek eginiko eta jarduerak eragiten dituen zarata- igorpen mailak arrazoitzen dituen azterketa akustikoko ikerketa edo txosten bat gaineratu behar da eta behar izanez gero, 22. Artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzeko adostuko diren neurri zuzentzaileak definitzen dituen txostena.

2.- Erasan akustikoa sor dezakeen edozein jarduera behin instalatuta egonez gero, ENAC Akreditaturiko Laborategi batek igorritako txosten bat aurkeztu behar da. Txosten horrek, gutxienez hurrengo entseguak egin eta betetzen direla baieztatu behar da:

- Aire- zarataren kontrako gutxienezko isolamendua ( $D_{nT,A}$ ), gertuen dauden etxebizitzekiko (egongela edota logeletan).
- Inpaktu- zaraten presioaren maila orokorra ( $L'_{nT,w}$ ), gertuen dauden etxebizitzekiko (egongela edota logeletan).
- Zarata- iturri ezberdinen zarata- igorpen mailak ( $L_{Amax}$ ,  $L_{keq,Ti}$ ) (aireztatze motorrak eta klimatizaziokoak, hozkailuak...) gertuen dauden etxebizitzekiko (egongela edota logeletan).

3.- Jarduera baten betetzea baloratzeko, inoiz ez da emaitzei dagokien ziurgabetasuna kontuan hartuko.

4.- Jardueraren batek, isolamenduzko gutxienezko baldintzak edota ordenantza honek ezarritako bestelako baldintzarik beteko ez balu, udalak, egoitzaren kategoria gutxiagotu eta kategoria berri honentzako bateragarriak ez diren ezaugarriak deuseztatuko litzateke.

## **22. Artikulua. Ostalaritza establezimendu eta ikuskizun publikoentzako baldintza bereziak**

1. Lan egiteko baldintzak:

- Jarduera abian dagoen bitartean, establezimendu horien ateak bakarrik ireki ahal izango dira 09:00tatik 22:00tara. Baina kasu horretan, ezin izango da erabili musika-ekipoa edo beste soinu-aparaturik.
- Orokorrean, leihoen funtzioa argitasun naturala ematearena izango da, eta aireztatzerako zerbitzu publikorako ordutegitik kanpo bakarrik erabili ahal izango dira. Hala eta guztiz ere, ateak bezala, onartu egingo da ateentzako ordutegi eta baldintzetan ireki ahal izatea. Dena den, leihoak ezin ahal izango dira erabili barra bezala edo-eta bezeroei hartutakoak zuzenean emateko, baina establezimenduko zerbitzari eta langileek erabili ahal izango dituzte, Udaletxeak baimendutako terrazetara azpilak atera eta hartutakoak eramateko.

- c) Igorpen- mailaren muga 90dB(A)tan ego goragokoa daukaten jarduerentzako, publikoarentzako sarbidea, xurgapen akustikodun atondo hermetiko eta ate bikoitz duna izango da. Edonola ere, ate bat irekita dagoen bitartean bestea itxita egongo dela bermatzeko, erretentzio malguak izango dituzte biak.

## 2. Soinu- iturrien mugaketak:

- a) Edozein establezimenduko musika tresna guztiak, hurrengo taulan adierazten denaren arabera mugatuko dira:

Jarduera mota	Soinu- igorpen maila maximoa dB(A)
Ostalaritzarekin zerikusirik ez duten eta egunez edota gauez egiten diren jarduerak Eguneko ordutegia eta 1. Taldeko eta 2. Taldekoak diren (Eusko Jaurlaritza) ostalaritza jarduerak	75 B(A)
3 Taldeko ostalaritza- jarduerak(Eusko Jaurlaritzako ordutegiak)	90 dB(A)
4 Taldeko ostalaritza- jarduerak(Eusko Jaurlaritzako ordutegiak)	95 dB(A)

- b) Musika tresna bat edota 75 dB(A)ko zarata- mailak sortu dezakeen edozein zarata- iturri duen lokal orok, frekuentziaren arabera mugatzaile bat ezarri beharko du. Behin soinu- paratua eta mugatzaileak instalatuz gero, ENAC bidez egiaztatutako agiri- akustikoa igorriko da, hurrengo datu hauekin:
- o Soinu- tresna, zarata- arrosa igorri eta gehienezko bolumena jarriz, lokalaren barruan dagoen zarata- maila.
  - o Aurretik aipatutako baldintzetan, gehien kaltetutako etxebizitzako Jasotze- maila (LAeq,Ti) (egongela edota logeletan), ezin da 20dB(A) baino altuagoa izan, zortziko bandetarako.
  - o Musika- tresnaren edota ezarritako edozein soinu- iturriren ezaugarrien deskribapena (marka, modeloa, ezaugarriak, eta abar...).
- c) Zerbitzua eskaintzearen ardura duen Udal edota enpresak, frekuentzia- mugatzailearen instalazioa eta agiria duela aztertu eta gainbegiratu du. Instalazioaren kostuak eta agiriak luzatzearenak, jardueraren jabea den pertsonaren esku egongo dira.

## 3. Soinu- iturrietan aldaketak egitea:

Soinu tresna batean egiten den edozein ordezkapen edo tresna berri baten gehitzea, Udalari jakinarazi behar zaio eta egokitzen zaion mugaketa egin behar zaio. Tresna berriari aplikatu behar zaizkion mugaketa berriak, zarata- iturri berriei dagozkienak dira.

## II. KAPITULUA: EXISTITZEN DIREN JARDUEREN BETE BEHARREKO BALDINTZAK

### 23. Artikulua. Aplikazio, prozedura eta betetze erregimena

2013ko urtarrilaren 1<sup>a</sup> baino lehenago baimendutako eta etxebizitzentzako hiri- lurzoruan kokatutako jarduerari, honako erregimen hau aplikatuko zaie:

- a) Dagoeneko martxan dauden jardueretan aplikatu beharreko muga- baloreak, I. Eranskineko 2. atalean zehaztutakoak dira.
- b) Dagoeneko existitzen diren jarduerak ezarritakoarekin bat egiten dutela ebaluatzeko jarraituko den prozedura II. Eranskinean azaltzen da.
- c) 2. atalean ezarritako baldintzekin bat egin ezean, horiek betetzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak adostuko dira.

### 24. Artikulua. Ostalaritza establezimendu eta ikuskizun publikoek bete beharreko berezko baldintzak

1.- Lan egiteko baldintzak: 22. artikuluko 1. atalean ezarritako baldintzak izango dira.

2.- Jada, dauden soinu- tresnen ber- mugatzea. Jada egokituta dauden soinu- iturrien ber mugaketa, 22. artikuluko 2. atalean ezartzen denarekin bat eginez egingo da, jarraian aurkezten diren kasuak salbuespen:

- a) Duten mugatzailea mantendu daiteke.
- b) Aurretik aipatutako baldintzetan, gehien kaltetutako etxebizitzako Jasotze- maila (LAeq,Ti) (egongela edota logeletan), ezin da 20dB(A) baino altuagoa izan, zortziko bandetarako.

3.- Soinu- iturrietan aldaketak egitea: Soinu- tresna batean egiten den edozein ordezkapen edo tresna berri baten gehitzea, Udalarri jakinarazi behar zaio eta egokitzen zaion mugaketa egin behar zaio. Tresna berriari aplikatu behar zaizkion mugaketa berriak, zarata- iturri berriei dagozkienak dira.

### III. ATALA: ZIKLOMOTOREEN EDO MOTORDUN GARRAIOEN ZIRKULAZIOA

#### **25. Artikulua. Ziklomotoreen edota motordun garraioen zarata- mailen limitazioak**

1.- Zirkulazioan dauden motordun ibilgailuak eta ziklomotoreak, zarata- maileri dagokienez, aurretik homologatuak egon beharko dira, abian dagoen arautegia betez, ekainaren 6ko 2028/1986 Errege Dekretua, hain zuzen. Dekretu horren bidez, zenbait zuzentarau komunitarioen aplikazioa arautzen da, baita. Eragiten duten zaratagatik, Ibilgailuen homologazioa arautzen duen maiatzaren 25eko 1439/1972 Dekretuaren aplikazioa ere.

2.- Motordun ibilgailu batek edo ziklomotore batek martxan egonda igorri dezakeen zarata- maila maximoa, ibilgailuaren homologazio fitxan kalkulaturako zarata- mailari 4 dB(A) gehituz lortzen da. Fitxan dagoen maila, ibilgailua geldirik egonda egindako entsegutik lortzen da, abian dagoen arautegiarekin bat eginez, ibilgailuari dagokion neurketa metodoa erabili dela.

3.- Ibilgailuaren ezaugarrien fitxa, zaharra delako edo beste arrazoi batzuegatik, ibilgailua geldirik egonda igorpen-maila kalkulatzeko entsegurik egin ez eta igorpen- mailarik adierazi ezean edota maila hau, homologazioan eskumena duen Ministerioaren Ibilgailuen Inspektzio Teknikoak igorri ezean, zarata igorpen- maila, gero igorpen- maila maximoa lortzeko helburuarekin, kalkulaturako da kontuan hartuz urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak xedatutakoa. Araudi horrek garatzen du azaroaren 17ko 37/2003 Zarataren Legea, gai hauei dagokionez: soinu zonifikazioa, kalitate helburu eta emisio akustikoak.

4.- Motordun ibilgailuen eta ziklomotoreen gidari guztiek, zarata igorpen- maila maximoak behar bezala betetzen direla baieztatzeko, agintarien aldetik eskatzen diren zarata- mailen kontrol guztietan laguntza eskaintzera behartuta daude.

#### **26. Artikulua. Erabiltzeko baldintzak**

1.- Trakzio mekanikodun ibilgailu orok, zarata eta bibrazioak sortzeko kapazak diren elementu guztiak egoera onean izan behar dituzte, batez ere, gasen ihesbideen isilgailuak.

2.- Isilgailurik ez daukaten, edota egokiak ez dituzten motordun ibilgailuen edo ziklomotoreen zirkulazioa debeketzen da.

3.- Debekaturik dago ibilgailuen abiadura behartzea, beharrezko ez diren azelerazioen ondorioz zarata gogaikarria eginez.

4.- Debekaturik dago bozina edo beste edozein seinale akustiko erabiltzea hiri barnean, kasu hauetan izan ezik: kolpaketa edo istripu arrisku larrien kasuetan, larrialdi zerbitzuen eta lehentasuna duten ibilgailu publiko zein pribatuen kasuetan, eta bide publikoan baimendutako ekintzak.

#### **27. Artikulua. Ibilgailuek sortutako zarata- mailen neurketa prozesuak**

1.- Motordun garraioen ikuskapen eta kontrola, dagokion Ibilgailuen Inspektzio Teknikoko entitatearen esku egongo da.

2.- Aurreko paragrafoan xedatutakoaren kalterik gabe, Udaltzaingoak izaera orokorreko kontrol prebentiboak egin ahal izango ditu, Udal honek erabaki ditzakeen programei jarraiki. Ziklomotor eta motozikleta hauek ateratzen duten zarata bide publikoan erraz egiaztatzeko, ibilgailua geratuta dagoela egingo zaio frogara, eta modu honetan:

- a) Neurketa egiteko motozikleta edo ziklomotorra geldituta egongo da. Ihes-hodiaren irteeran (isilgailuan) daukan presio akustikoa neurtuko da, ondoren zehazten diren zehaztapenei jarraiki.
- b) Froga egiten den tokian ez da gorabehera akustiko garrantzitsurik izango: ormak, landareak... Zorua laua izango da, eta ormigoiz, asfaltoz edo bestelako estaldura gogor batez zolaturik egongo da. Laukizuzen baten forma izango du; eta aldeak, gutxienez ere, motozikletatik edo ziklomotorretik (eskulekua alde batera utzita) 3 metrora egongo dira.
- c) Aipatutako laukizuzen horren barne ez da traba nabarmenik egongo, ez eta behatzailea eta gidaria ez diren beste pertsonik ere. Zintarririk badago, motozikleta edo ziklomotorra laukizuzen barne kokatuko da, neurketa-mikrofonoa, gutxienez, metro batera kokatu ahal izateko.
- d) Inguru horretan dagoen zarata-maila neurtu beharko da. Neurri hauek izango dira, gutxienez, neurtu behar den soinu-maila baino 10 dB(A) gutxiagoak. Neurketan haizearen zarata ekiditeko mikrofonoari, haizeaz babesteko pantaila jarri beharko zaio.
- e) Mikrofonoa, ihes-hodiaren irteeraren parean kokatuko eta, inoiz ez, pistaren zortitik 0,2 metrotik beherako altueran. Mikrofonoaren mintza gasaren irteera-tokiari begira eta 0,5 metrora jarriko da. Mikrofonoa pistaren

- lurzoruarekiko paralelo egongo da; eta  $45^\circ \pm 10^\circ$ -ko angelua osatuko du, ihes-gasen irteera-norabidearen plano bertikalarekin. Ihes-hodi batzuk baditu eta beraien arteko erdiguneak bata bestetik 0,3 metrotik behera badago, mikrofonoa barneragoen dagoen irteerari edo gorakoan dagoenari begira jarriko da. Aldiz, hodian erdiguneen arteko tartea 0,3 metrotik gorakoa bada, irteera bakoitzean neurketa bat egingo da eta neurketaren maila altuena bakarrik hartuko da kontuan.
- f) Neurketari ekin aurretik motorra funtzionamenduko tenperatura normalean jarriko da. Neurketa egiten den bitartean abiadura-kaxaren palanka loka egongo da. Transmisioa kentzea ezinezkoa den kasuetan, gurpil eragilea mugitzen utziko da, esate baterako, motozikleta edo ziklomotorra sostengu baten gainera igoz.
  - g) Motorra egonkortu egingo da, azelerazio-bidea erdiraino leunki azeleratu ondoren. Egokortzen denean azeleragailua erralenti posiziora eramango da. Soinu-maila neurtuko da, motorra egonkortuta edukitzen den unean eta dezelerazio prozesu osoan zehar.
  - h) Neurketa egingo da neurgailuaren A frekuentziako hastapena eta FAST (azkarra) denborako hastapenak erabiliz. Leq eta  $L_{max}$  mailak zehaztu beharko dira neurketa egiten denean.
  - i) Gutxienez hiru neurketa egingo dira, mikrofonoa kokatzeko identifikatu diren puntu bakoitzean. Dena den, beraien artean 2 dB(A) baino alde txikiagoa duten neurketak bakarrik hartuko dira kontuan.
  - j) Neurketaren maila, egindako hiru neurketen batez besteko aritmetikoa izango da

## **28. Artikulua. Zaratagatik arau-haustea egonez gero hartu beharreko neurriak**

1.- Behin dagokion proba egin eta gero, ibilgailu horri dagokion zarata-maila baino 4 dB(A) goragokoa baldin bada, salaketa egongo zaio, baina detektatu izandako irregulartasuna konpontzearen baldintzapean. Ibilgailuaren titularrak 15 laneguneko epea izango du ikuskatutako akatsak konpontzeko, baimendutako konponketa-lantegi batean. Konponketa egin zuen lantegiak emandako ziurtagiriaren bidez irregulartasuna konpondu izana egiaztatzen denean, salaketa kendu egingo da, baldin eta titularrari arrazoi berdinagatik jarritako beste salaketaren bat lehendik kendu ez bazaio.

2.- Udaltzainek ibilgailua ibilgetu ahal izango dute honako kasuetan: gidariak zarata-kontrolako frogak egiteari uko egiten dienean; edo ihes-hodi libre delakoaz, isilgailu narriatuaz edo ihes-hodi ez-homologatuaz dabilenean; edota, arrazoiak edozein delarik ere, baimendutako zarata-maila baino 4 dB(A) goragokoa ateratzen duenean; eta kasu hauetan guztietan, dagokion salaketa egongo da.

3.- Aipatutako epea igaro eta ibilgailua berrikuskapena egitera eraman izana egiaztatu ez bada, udaltzainek ibilgailua zigilatu ahal izango dute edo, zuzenean, bide publikotik atera eta udal ibilgailu-gordailura eraman; eta hori, dagokion arau haustearen ondorioz egin beharko duten salaketaren kalterik gabe.

4.- Ibilgailuak egiten duen zarata-maila egiaztatzeko frogak egiteari uko egiten badio gidariak, udaltzainek ibilgailua gordailura eramango dute. Gidariak ibilgailua udal-gordailutik atera ahal izateko, aldeztu aurretik, zarata-maila egiaztatzeko dagokion frogara egin beharko zaio.

5.- Artikulu honetan aurreikusitako neurriak, Ordenantza honetan xedatutako zigor ekonomikoen osagarriak izan daitezke.

## **V. KAPITULUA: JARDUEREGIN ZERIKUSIRIK EZ DITUZTEN AZPIEGITURAK**

### **29. Artikulua. Aplikazio eremua eta espezifikazioak**

1.- Kapitulu honek, lizentziarik behar ez duten jardueretara lotutako eta biztanleengan erasana sortu dezaketen makina, tresna edo azpiegituri erreferentzia egiten die, adibidez, aire girotuen instalazioak, haizagailu edo izozkailuak, eta abar. lizentzia behar duen azpiegiturretara edota norberakoen edo etxebizitza eraikin komunitarioetako instalazioak (garajeen ateak, igogailuak, galdara- gelak...).

2.- Instalazio berriek bete behar dituzten limiteak I. Eranskinen 1. Atalean ezarritakoak dira, abian jarri nahi diren jarduera berriei, barruan zein kanpoaldean bete behar dituzten zarata- mailen berdina izanik. Dagoeneko existitzen diren instalazioentzako, bete beharreko limiteak, I. Eranskinen 2. Atalean ezarritakoak izango dira, abian dauden jarduerari exijitzen zaie berdina direlarik.

3.- Instalazioak ezarritakoarekin bat egiten duela ebaluatzeko prozedura, II. Eranskinaren E atalean deskribatzen dena izango da.

## **V. IZENBURUA: DIZIPLINA- ERREGIMENA**

### **30. Artikulua. Ikuskapena.**

1.- Kutsadura akustikoaren arloan ikuskapenak egingo dituztenek, agintaritzak agenteak izango dira, azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen erregimen- juridikoa eta Administrazio Prozedura Komunen Legean ezartzen

diren helburuetarako, eta eskuduntza pribatu zein publikoko edozein toki, instalazio edo dependentziara sartzea izango dute. Etxebizitzetara sartzeko, jabearen baimena izan beharko dute, edota ebazpen judizial bat.

2.- Zarata- iturrien jabeek, momentu oro agintariei laguntzera behartuta daude, haien funtzioekin betetzeko behar dituzten azterketa, kontrolak, neurketak eta informazioa batzeko lanak behar bezala egin ditzaten.

### **31. Artikulua. Arauen urraketak.**

1.- Kutsadura akustikoarekin lotutako urraketa administratiboak, oso larriak, larriak eta arinetan sailkatzen dira.

2.- Urraketa **oso larriak**:

- a) Kutsadura akustikoaren arloan, sailkatutako jardueren lizentzian edota administrazioaren bestelako figuretarako ezarritako baldintzak ez betetzea, eta ondorioz, ingurugiroan kalte edo hondaketa larria eragin denean, edota pertsonen segurtasun edo osasuna arrisku larrian jarri denean.
- b) Eraikinak zarataren kontra babesteko ezarri diren arauak ez betetzea, horren ondorioz, pertsonen segurtasun edo osasuna arrisku larrian jarri denean.
- c) Bi urteko epean, hirugarren falta larria eginez gero.

3.- Urraketa **larriak**:

- a) Kutsadura akustikoaren arloan, sailkatutako jardueren lizentzian edota administrazioaren bestelako figuretarako ezarritako baldintzak ez betetzea, eta ondorioz, ingurugiroan kalte edo hondaketa larria eragin denean, edota pertsonen segurtasun edo osasuna arrisku larrian jarri ez denean.
- b) Txosten administratiboetan, kutsadura akustikoarekin zerikusia duten datuak maltzurkeriaz izkutatuta edo eraldatzea, lege honetan araututako jarduerak martxan jartzeko, beharrezkoak diren baimenak edo lizentziak lortzeko
- c) Administrazio publikoei, ikuskapena edo kontrola egiteko eragozpenak, berandutzeak edo oztopoak jartzea.
- d) Eskumeneko Administrazioak eskatutako neurri zuzentzaileak ez ezartzea.
- e) Behin-behineko neurriak adosteko dituen beharrekin ez betetzea.
- f) Udal- baimenik gabe, insonorizazio eta isolamendu akustikoko instalazioetan aldaketak egitea, hauek, jarduerak aurrera egiteko lizentzia eskaintzeko beharrezkotzat jo direnean eta aldaketak perturbazioak eragiten dituenean.
- g) Udal ebazpenean zigorlaturako edozein soinu- iturri trukitzea, manipulaztea edota baimenik gabe ordezkaztea.
- h) Zarata eta bibrazioen arloan urraketak egiteagatik, jarduera bertan behera uztea edo lokalak ixtea duten ebazpen judizialei muzin egitea.
- i) Bi urteko epean, hirugarren falta arina eginez gero.

3. Urraketa **arinak**:

- a) Eskuduntza duen Administrazioari eskatutako datuak, ezarritako epean ez luzatzea.
- b) Aplikagarria den arautegian honela eskatzen denean, soinu- iturriak zarata igorpen- mailaren gaineko informaziorik gabe, instalatu edo merkaturatzea.
- c) 10 artikuluko 2. Atalean adierazitako urraketak.
- d) Ordenantzaren III. kapituluari adierazitako, ziklomotore eta motordun ibilgailuentzako ezarritako igorpen- maila maximoen urraketa.
- e) Ordenantza honetan jasotzen dena ez betetzea, urraketa larri edo oso larritzat jotzen ez denean.

### **32. Artikulua. Zigorrak.**

1. Deskribatutako urraketek, hurrengo zigorrek ondorio izan ditzakete:

- a) Urraketak oso larriak izan direnean: 3.000 euro arte, edo-eta kutsadura akustikoaren aldetik, gutxienez hilabeteko epean eta gehienez hiru hilabeteko epean, baldintzak ezarri diren Udal baimen edo lizentziak bertan behera uztea.
- b) Urraketak larriak izan direnean: 1.500 euro arte, edo-eta kutsadura akustikoaren aldetik, gutxienez hamar eguneko epean eta gehienez hilabeteko epean, baldintzak ezarri diren Udal baimen edo lizentziak bertan behera uztea.
- c) Urraketak arinak izan direnean: 750 euro arte, edo-eta kutsadura akustikoaren aldetik, gutxienez egun bateko epean eta gehienez hamar eguneko epean, baldintzak ezarri diren Udal baimen edo lizentziak bertan behera uztea.

### **33. Artikulua. Behin-behineko neurriak.**

Prozesu zigortzailea behin hasita dagoenean, zigorra ezartzeko eskuduntza duen batzordeak, jarraian azaltzen diren behin-behineko neurriak adostu ditzake:

- a) Tresna, aparatuen edo ibilgailuak zigitatzea.
- b) Establezimenduaren instalazioen denborazko klausura, partziala edo osoa.
- c) Kutsadura akustikoaren arloan, sailkatutako jardueren lizentzian edota administrazioaren bestelako figuretarako, ezarritako baldintzak ez betetzea, lizentzia hori, epe batez bertan behera uztea.
- d) Kaltea edo arriskua saihesten duten, neurri zuzentzaileak, segurtasun- neurriak edo kontrol- neurriak ezartzea.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantzaren 7. artikuluan aurreikusitako ordutegiak (goiz, arratsalde eta gaua), udalerriko soinu-kalitate helburua neurtu ahal izateko izango dute bakarrik indarra. Ordutegi horiek ez dute aldatzen beste udal ordenantzetan jasotakoak. Beraz, gainontzeko udal ordenantzetan aurreikusitako ordutegi bereziak indarrean jarraituko dute. Adibide modura, indarraldian dauden honako hauek aipatzen dira:

- Bide publikoa terraza eta mahaiekin okupatu eta erabiltzeko udal ordenantza. (2013ko ekainaren 7an GAOn argitaratua).
- Gaueko ordutegian diharduten ostalaritzako, aisialdiko eta bestelako establezimenduen kokalekua arautzeko udal ordenantza (2011ko martxoaren 4ean GAOn argitaratua)
- Hiri-hondakin solidoak kudeatzeko udal ordenantza (2005ko uztailaren 11an GAOn argitaratua)
- Ostalaritza gremioko establezimenduak arautzeko ordenantza (1985ko maiatzaren 10eko GAOn argitaratua)

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza honek, honako Ordenantza hauek indargabetzen ditu espresuki:

- Pertsonak zaratatik eta bibrazioetatik babesteko udal Ordenantza (1998ko otsailaren 16ko GAOn argitaratutakoa).
- Ibilgailu motordunen zaratari buruzko udal ordenantza (2001eko abuztuaren 8ko GAOn argitaratutakoa).

#### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Aipatutako Indargabetutako Ordenantza indarrean egon bitartean aurkeztutako eta oraindik ebatzi gabeko eskaerek, egoki zaien prozedura jarraituko dute, hau da, eskaeraren txostena aurkeztu eta orduan indarrean zegoen Ordenantza ezarritakoa. Interesatuak, eskaerari uko egin edo Ordenantza honentzako eskaera berri bat aurkeztearen artean erabaki dezake.

#### **AZKENEKO XEDAPENA**

Lehenengoa.- ordenantza hau, Gipuzkoako Boletin Ofizialean osorik argitaratu eta 15 egun baliodunetan indarrean jarriko da.

#### **ERANSKINA 0: DEFINIZIOAK**

- a) Eremu akustikoa: eskumeneko administrazioak mugatutako lurralde-esparrua, azalera osoan kalitate akustikoko helburu bera daukana.
- b) Igorpen-indizea: zarata-foku batek sortutako hots-kutsadurari dagokion indize akustikoa.
- c) Immisio-indizea: toki batean eta ebaluazio-aldi jakin batean dagoen
- d) Arazoa: Zaratak edo bibrazioek biztanleen artean eragiten dituzten traben maila, tokian-tokian eginiko inkesten bidez zehaztua.
- e) Zarata-mapa: alde zurretik existitzen den edota zarata-indize bat oinarri harturik iragarritako zarata-egoera bati buruzko datuen aurkezpena da zarata-mapa. Bertan, besteak beste, honako hauek zehaztuko dira: indarreko mugarik gainditu den; eremu zehatz batean zarata jasaten duten pertsonen kopurua; edota eremu jakin batean zarata-adierazle baten maila jakin batzuk jasan ditzaketen etxebizitzaren kopurua.
- f) Eraikuntza berria: dekretu hau indarrean jartzen den unean udalaren aginduzko lan-baimena ez duen eraikuntza.
- g) Kalitate akustikoko helburua: Kutsadura akustikoari dagokionez, une eta espazio jakin batean bete beharreko betekizunen multzoa, immisio edo igortzeen gehienezko balioak barne

- h) Ekintza-plana: administrazio batek bere eskumenen esparruan hots-kutsadura orokorki kudeatzeko hartzen duen estrategia eta ekintza zuzentzaile, aurre-hartzaile eta zaintzaileen multzoa. Ekintza-plan hori lurralde baten ebaluazio orokorrera atxikita egon daiteke edo, bestela, eremu bateko zarata-iturri jakin batek dakarren eragin orokorrari aurre egin diezaioke.
- i) Zonako plan akustikoa: lurraldeko administrazio publiko batek babes akustiko bereziko eremu batean gauzatu beharreko jardueren multzoa, hots-kutsadura murriztu eta eremu horretan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak bete daitezten.
- j) Etorri naturaleko soinen erreserba: g) motako eremuen multzoan sailkatutako espazioak; espazio horietako soinua hots-kutsaduraren aurrean zaindu beharrekoak dira, bai beren kultura-edo natura-balio berdingabea dela medio, bai beste zarata-iturri batzuen aurrean duten garbitasuna edo gardentasuna dela bide.
- k) Zarata arrosa: zarata, zeinen espektro, presio- edo potentzia-mailetan adierazita, heren zortzireneko maiztasun-bandetan, zuzen bat da, 0 dB/zortzidun-eko maldarekin. Neurketa normalizatuak egiteko erabiltzen da.
- l) Hots erasotzailea: etxebizitza baten fatxadan islatutako hotsa kontuan hartzen ez denean hotsa ebaluatzeko orduan.
- m) Muga balioa: Gaindu behar ez den eta, gainditezotan, agintari eskudunak gaintitze hori saihesteko neurriak aurreikusi edo ezartzera behartzen dituen indize akustikoaren balioa da. Muga balioak aldakorak dira, hauen arabera: Igorle akustikoa (ibilgailuen trafikoaren, trenen edo hegazkinen zarata, industriak eragindako zarata, etab.), ingurumena, edo herritar taldeek kutsadura akustikoaren aurrean duten minberatasuna. Ezberdinak izan daitezke jada existitzen den egoera batetik egoera berri batera igarotzean (igorle akustikoa edo inguruari emandako erabilera aldatzen denean).
- n) Ibilgailu motorduna: Propulsiarako motor bat duen ibilgailua, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan definitutakoa.
- o) Bibrazioa: Igorle akustiko batek eragindako traba, gorputzen oszilazio periodikoa eragiten duena euren oreka kokapenaren gainean.
- p) Gune komuna: erabilera unitate ezberdinei zerbitzua ematen dieten guneak
- q) Babes akustiko bereziaren eremua (BABE): kalitate akustikoko helburu aplikagarriak betetzen ez diren area akustikoak. Administrazioak halakotzat jo beharko ditu eta dagokien eremuko plan akustikoa zehaztu beharko zaie.
- r) Azpiegitura autonomikoaren zortasun akustikoaren eremua: erkidego- edo foru-eskumeneko garraiobide-azpiegitura bati lotutako lurralde-zerrenda, azpiegitura horren inpaktu akustikoaren gehienezko maila irudikatzen duena eta azpiegituraren funtzionamendua lurzoruaren erabilerekin bateratzen laguntzeko balio duena.
- s) Egoera akustiko bereziko eremua (EABE): eskumeneko administrazioak babes akustiko bereziko gisa sailkatutako esparru bati dagozkion eremu akustikoak; esparru horietan dagokien eremuko planean ezarritakoaren arabera neurri zuzentzaileek ezin izan dute eragotzi kalitate akustikoko helburuak ez betetzea eta, horrenbestez, epe luzerako neurri osagarriak zehaztu behar dira, barneko espazioei lotutako kalitate akustikoko helburuak betetzea lortzeko.

## I. ERANSKINA: ZARATA - FOKUAK

### 1. ZARATA -FOKU BERRIETARAKO MUGA-BALIOAK

#### 1.1. Zarata-mailak kanpoaldean

**D taula. Errepide- eta trenbide-azpiegitura berriei aplikatzeko zarata-immisioaren muga-balioak**

Eremu akustikoko mota		Zarata-adierazleak		
		$L_d$	$L_e$	$L_n$
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	55	55	45
a	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	60	60	50
d	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	65	65	55
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	68	68	58
b	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	70	70	60

*Oharra: kanpoaldeko muga-balioak lurretik 2 metroko garaiera dute erreferentziazat, eta eraikuntzaren garaiera guztiak, berriz, leihodun fatxaden kanpoaldeari dagokionez.*

**E taula. Jarduera eta trenbide-azpiegitura berriei aplikatzeko zarata-immisioaren muga-balioak**

Eremu akustikoko mota	Zarata-adierazleak
-----------------------	--------------------



		$L_{Amax}$
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	80
a	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	85
d	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	88
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	90
b	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	90

Oharra: kanpoaldeko muga-balioak lurretik 2 metroko garaiera dute erreferentziatzen, eta eraikuntzaren garaiera guztiak, berriz, leihodun fatxaden kanpoaldeari dagokionez.

**F1 taula. Jarduera berriei aplikatzeko zarata-immisioaren muga-balioak, ebaluazio-aldi osoetarako**

Eremu akustikoko mota		Zarata-adierazleak		
		$L_{K,d}$	$L_{K,e}$	$L_{K,n}$
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	50	50	40
a	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	55	55	45
d	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	60	60	50
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	63	63	53
b	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55

**F2 taula. Jarduera berriei aplikatzeko zarata-immisioaren muga-balioak ebaluazio-aldi motzetarako, funtzionamenduaren adierazleak.**

Eremu akustikoko mota		Zarata-adierazleak		
		Eguna $L_{Keg,Ti}$	Arrats. $L_{Keg,Ti}$	Gaua $L_{Keg,Ti}$
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	55	55	45
a	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	60	60	50
d	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	65	65	55
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	68	68	58
b	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	70	70	60

(1): Muga-balio horiek aplikagarriak dira orobat ezin eremu akustikotan kokatuta ez dauden bizitegi-erabilerako eraikinetarako; balioak eraikinaren garaiera orotan leihodun fatxada guztietara iristen den soinuari dagozkio. Oharra: kanpoaldeko muga-balioak lurretik 2 metroko garaiera dute erreferentziatzen, eta eraikuntzaren garaiera guztiak, berriz, leihodun fatxaden kanpoaldeari dagokionez.

## **1.2. Zarata-mailak eraikinaren barruan: Jarduera berriek mugakide diren lokaletara (\*) igortzen duten zarataren muga-balioak.**

**G1 taula. Ebaluazio-aldi osoetarako**

Ondoko lokalaren erabilera (**)	Esparru mota	Zarata-adierazleak		
		$L_{K,d}$	$L_{K,e}$	$L_{K,n}$
Etxebizitzak	Egongelak	40	40	30
	Logelak	35	35	25
Administrazio- eta bulego-erabilera	Langelak	35	35	35
	Bulegoak	40	40	40
Osasuna	Egonguneak	40	40	30
	Logelak	35	35	25

Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	35	35	35
	Irakurketa-gelak	30	30	30

**G2 taula. Ebaluazio-aldi motzetarako, funtzionamenduaren adierazleak**

Ondoko lokalaren erabilera (**)	Esparru mota	Zarata-adierazleak		
		Eguna $L_{Keq,Ti}$	Arrats. $L_{Keq,Ti}$	Gaua $L_{Keq,Ti}$
Etxebizitzak	Egongelak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Administrazio- eta bulego-erabilera	Langelak	40	40	40
	Bulegoak	45	45	45
Osasuna	Egonguneak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	40	40	40
	Irakurketa-gelak	35	35	35

**H taula: Zarataren gehieneko muga-balioak**

Ondoko lokalaren erabilera (**)	Esparru mota	Zarata-adierazleak		
		$L_{Amaxd}$	$L_{Amaxe}$	$L_{Amaxn}$
Etxebizitzak	Egongelak	50	50	40
	Logelak	45	45	35
Administrazio- eta bulego-erabilera	Langelak eta bulegoak	45	45	45
Osasuna	Egonguneak	50	50	50
	Logelak	45	45	35
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	45	45	45
	Irakurketa-gelak	40	40	40

(\*)Bi lokal mugakide diren lokaltzat joko dira sortzailearen eta hartzailearen arteko zarata-igorpena kanpoaldetik gauzatzen ez denean.

\*\* Atarietan immisioak ebaluatzeko, egongelatza (etxebizitzak) eta merkataritza-erabilerako lokaleetan, bulegotzat (administrazio- eta bulego-erabilera) hartuko dira.

### 1.3. Hiriko bizitegi-lurrean dauden jarduera berrientzat zarataren kontrako gutxieneko isolamendua

I1 taula: G1 eta G2 <sup>(3)</sup> taulatan adierazitako erabileretako bat duten ondoko lokaletara zarata igirtzen duten eta eragin akustikoa sor dezaketen jarduerak

Zarata-igorpenaren muga dBA	Airetiko zarataren kontrako gutxieneko isolamendua $D_{nT,A}$ . Eguneko ordutegia	Airetiko zarataren kontrako gutxieneko isolamendua $D_{nT,A}$ . Gauko ordutegia	Talka-zarataren kontrako soinu-isolamendua $L'_{n,Tw}$
≤ 85 dB(A)	60 dB(A)	65 dB(A)	40 dB(A)
90 dB(A)	65 dB(A)	70 dB(A)	40 dB(A)
95 dB(A)	70 dB(A)	75 dB(A)	40 dB(A)

<sup>(3)</sup> Adierazi ez diren erabileretako bat duten ondoko lokalentzako, isolamendu balioak erabilera hauetarako immisio-balioen arabera ezarriko dira

**I2 taula: Eragin akustikoa sor ez dezaten jarduera berrietarako**

Zarata-igorpenaren muga dBA	Airetiko zarataren kontrako gutxieneko isolamendua $D_{nT,A}$ . Eguneko ordutegia	Talka-zarataren kontrako soinu-isolamendua $L'_{n,Tw}$
≤ 75 dB(A)	55 dB(A)	60 dB(A)

I1 eta I2 taulak ez dira baliozkoak industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreetan dauden industria-jarduerentzat.

### 1.4. Dardarak: jarduera berriei aplikatzeko muga-balioak

**J taula:**

Eraikinaren erabilera	Dardara-indizea $L_{aw}$
Etxebizitza edo bizitegi-erabilera	75
Ospitalea	72
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	72

## 2. HIRIKO BIZITEGI-LURREAN DAUDEN JARDUEREI APLIKATZEKO MUGA-BALIOAK

### 2.1. Zarata-mailak kanpoaldean: hiriko bizitegi-lurrean dauden jardueri aplikatzeko muga-balioak

**K taula. Ebaluazio-aldi motzetarako, funtzionamenduaren adierazleak**

Eremu akustikoko mota		Zarata-adierazleak	
		$L_{Aeq,T}$ Eguna- Arrats	$L_{Aeq,T}$ Gaua
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilera lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo - sektoreetarako zehaztutakoekin.	45	35
a	Bizitegi-erabilera lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	55	45
d	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilera lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	65	50
b	Industria-erabilera lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	70	55

### 2.2. Zarata-mailak eraikinaren barruan: hiriko bizitegi-lurrean dauden jardueri mugakide diren lokaletara (\*) igortzen duten zarataren muga-balioak.

**L taula: Ebaluazio-aldi motzetarako, funtzionamenduaren adierazleak**

Ondoko lokalaren erabilera	Esparru mota	Zarata-adierazleak	
		$L_{Aeq,T}$ Eguna- Arrats	$L_{Aeq,T}$ Gaua
Etxebizitza edo bizitegi-erabilera	Osagai komunak (ataria, eskailera)	40	35
	Logelak eta egongelak	35	28
Administrazio- eta bulego-erabilera	Langelak eta bulegoak	40	-
Ospitalea	Egonguneak eta logelak	28	25
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak eta Irakurketa-gelak	35	30
Merkataritza-erabilera		40	40

**M taula: Gehieneko muga-balioak**

Ondoko lokalaren erabilera	Esparru mota	Zarata-adierazleak	
		$L_{Amax}$ Eguna- Arrats	$L_{Amax}$ Gaua
Etxebizitza edo bizitegi-	Osagai komunak (ataria, eskailera)	45	40

erabilera	Logelak eta egongela	40	33
Administrazio- eta bulego-erabilera	Langelak eta bulegoak	45	-
Ospitalea	Egonguneak eta logelak	33	30
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak eta Irakurketa-gelak	35	30
Merkataritza-erabilera		45	45

(\*)Bi lokal mugakide diren lokaltzat joko dira sortzailearen eta hartzailearen arteko zarata-igorpena kanpoaldetik gauzatzen ez denean.

### **2.3. Dardarak: dauden jardueri aplikatzeko zarata-immisioaren muga-balioak**

N taula:

Eraikinaren erabilera	Dardara-indizea $L_{aw}$
Etxebizitza edo bizitegi-erabilera	75
Ospitalea	72
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	72

## **II. ERANSKINA: GIROKO ZARATA FOKUEK ERAGINDAKO SOINU MAILEI DAGOZKIEN ZARATA INDIZEAK BALORATZEKO METODO ETA PROZEDURAK**

### **1. ZARATA - ADIERAZLEAK**

#### **a) Zarata jarraitu baliokidearen $L_{Aeq,T}$ indizea.**

Soinu-presioaren A maila jarraitu baliokide eta haztatua da  $L_{Aeq,T}$  zarata-indizea, dezibeliotan emana eta T segundoko denbora-tarte batean neurtua. «Ingurune-zarataren deskribapena, neurketa eta ebaluazioa. 1. atala: Oinarrizko magnitudeak eta ebaluazio-metodoak» izeneko ISO 1996-1:2005 arauan zehaztuta dago zarata-indize hori, baita hura ordezkatzeko edo osatzen duten arauetan ere.

Non:

- T = d bada,  $L_{Aeq,d}$  soinu-presioaren A maila jarraitu baliokide eta haztatua den, eguneko aldian zehaztua;  $L_d$  esaten zaiona ere.
- T = e bada,  $L_{Aeq,e}$  soinu-presioaren A maila jarraitu baliokide eta haztatua den, arratsaldeko aldian zehaztua;  $L_e$  esaten zaiona ere.
- T = n bada,  $L_{Aeq,n}$  soinu-presioaren A maila jarraitu baliokide eta haztatua den, gaueko aldian zehaztua;  $L_n$  esaten zaiona ere.

#### **b) Gehieneko zarataren $L_{Amax}$ indizearen definizioa.**

$L_{Amax}$  zarata-indizea da soinu-presioaren gehieneko A maila haztatua, dezibeliotan emana eta fast integrazio-konstanteduna ( $L_{AFmax}$ ). Soinu-presio hori ISO 1996-1:2005 arauan zehaztuta dago, eta denborazko ebaluazio-aldian erregistratzen da.

#### **c) $L_{K_{eq,T}}$ zarata-indize jarraitu baliokide eta zuzenduaren definizioa.**

$L_{K_{eq,T}}$  zarata-indizea da osagai tonal emergenteen, behe-frekuentziako osagaien eta zarata oldarkorren presentziak zuzendutako soinu-presioaren A maila jarraitu baliokide haztatua ( $L_{Aeq,T}$ ). Zuzenketa hori beheko adierazpen honen arabera egiten da betiere:

$$L_{K_{eq,T}} = L_{Aeq,T} + K_t + K_f + K_i$$

Non:

- $K_t$  den  $L_{K_{eq,T}}$  indizeari atxikitako zuzenketa-parametroa, osagai tonal emergenteen presentziagatik zarataren eragin kaltegarriak ebaluatzeko balio duena, eranskin honetan deskribatutako metodologia aplikatuz kalkulatu.

- $K_f$  den  $L_{K_{eq,T}}$  indizeari atxikitako zuzenketa-parametroa, behe-frekuentziako osagaien presentziagatik zarataren eragin kaltegarriak ebaluatzeko balio duena, eranskin honetan deskribatutako metodologia aplikatuz kalkulatu.
- $K_i$  den  $L_{K_{eq,T}}$  indizeari atxikitako zuzenketa-parametroa, zarata oldarkorraren presentziagatik zarataren eragin kaltegarriak ebaluatzeko balio duena, eranskin honetan deskribatutako metodologia aplikatuz kalkulatu.

**d) Epe luzeko batez besteko zarata indize jarraitu baliokide eta zuzenduaren definizioa,  $L_{K,x}$ .**

$L_{K,x}$  zarata indizea da epe luzeko batez besteko zarata maila, beheko adierazpenaren bidez kalkulatzen dena, eta urtebeteko denborazko ebaluazioaldi guztiak ( $x$ ) aintzat hartuta zehazten dena.

$$L_{K,x} = 10 \lg \left( \frac{1}{n} \sum_{i=1}^n 10^{0.1(L_{K_{eq,x}})_i} \right)$$

Non:  $n$  den urte batean zehar " $x$ " denborazko ebaluazioaldietan atera diren laginen kopurua, eta  $(L_{K_{eq,x}})_i$  den zarata maila zuzendua,  $i$ -garren laginaren " $x$ " denborazko ebaluazioaldian zehaztua.

**e) Airetiko zarataren kontrako gutxieneko isolamendua:** barnealdeko esparruen arteko haztatutako A mailen arteko  $D_{nt,A}$  diferentzia estandarizatua (dBA-tan ematen da), DB-HR Zarataren aurreko babes oinarritzko dokumentuko A eranskinean, A.7 formularen, zehazki, definitzen den gisara.

**f) Talka-zarataren kontrako soinu-isolamendua:** jarduera batek bete beharreko talka-zarata dagokion presio-mailaren  $L_{nTW}$  balio global estandarizatua (dB-tan).

**g)  $L_{aw}$  bibrazio-indizea:**

$L_{aw}$  dardara-indizea (dB-tan ematen da) beheko formula hau aplikatuta kalkulatzen da:

$$L_{aw} = 20 \lg \frac{a_w}{a_0}$$

Osagaiak ondokoak izanik:

- $a_w$ :  $a(t)$  denborazko azelerazio-zeinuaren gehieneko balio eraginkorra (RMS) da,  $w_m$  frekuentzian haztatua, hau da,  $a_w(t)$ -ren balio maximoa,  $m/s^2$ -tan.
- $a_0$ : erreferentziako azelerazioa ( $a_0 = 10^{-6} m/s^2$ ).

Non:

- Frekuentziako haztapena honako arau honetan edota hura ordezkatzeko edo osatzeko duen beste arau batean definitutako  $w_m$  ahuldura-kurbaren arabera egiten da: UNE EN ISO 8041:2006: «Gizakiek dardaren aurrean duten erantzuna. Neurketa-tresnak» (1 - 80 Hz).
- $a_w(t)$  balio eraginkorra 1 s (slow) denbora-konstanteko batez besteko esponenzialaren bidez lortzen da.  $a_w$  neurketako baliorik altuena hartuko da aintzat. «Gizakiek gorputz osoko dardarak jasateko arriskuaren ebaluazioa. 1. atala: Baldintza orokorrak» izeneko ISO 2631-1 arauan definitu da aipatu parametro hori, MTVV (Maximum Transient Vibration Value) gisa, «running» izeneko ebaluazio-metodoaren barruan, hain zuzen.

## 2- INDIZE AKUSTIKOAK EBALUATZEKO PROZEDURAK

### A. GOGOETA OROKORRAK

1. Ordenantza honetan ezarritako indize akustikoen balioak kalkuluen edo neurketen (ebaluazio-gunean) bidez lor daitezke. Aurreikuspenak, berriz, kalkuluen bidez besterik ezin dira lortu.
2. Administrazio eskumendunek jarduerak ikuskatzeko orduan, neurketen bidez zehaztuko dituzte indize akustikoak.
3. Zarata indizeak in situ neurtuta ebaluatzea erabaki duten administrazio eskumendunek eranskin honetako zarata indizeetan erabilitako definizioetara moldatu beharko dituzte baliatutako neurketa metodoak, bai eta neurketei aplikatu dakizkiekeen printzipioak bete eta denborazko ebaluazioaldi jakinetan zarata mailak ebaluatzeko eta epe luzeko batez bestekoak ateratzeko ere, dagokionaren arabera. Printzipio horiek honako bi arau hauetan ezarrita daude: ISO 1996-2: 2009 eta ISO 1996-1: 2005 (edo horiek ordeztzen edo osatzen dituztenetan).

4. Zarata indizeen ebaluazio gunearen altuera.

- a) Ebaluazio gunearentzat hainbat altuera aukeratu ahal izango dira. Erabilera hauetarako, ordea, lurzorutik 1,5 metrora edo gehiagora egon beharko dute: Plangintza akustikoa egiteko, eremu zaratatsuak zehazteko, solairu bakarreko eraikinak dituzten landa eremuetako ebaluazio akustikoa egiteko, etxebizitza jakin batzuetan eragin akustikoa murrizteko tokiko neurriak prestatzeko eta eremu mugatu bateko zarata mapa egiteko, etxebizitza bakoitzaren esposizio maila irudikatuko duena.
- b) Neurketa lanak eraikinen barnealdean egiten direnean, 1,2 m eta 1,5 m bitarteko altuera utzi beharko da lurzorutik.
- c) 213/2012 Dekretuko 10. artikuluko xedapenen menpeko zarata mapetarako, ebaluazio altuera 4 m-koa da lurzorutik.

5. Zarataren ebaluazio kanpoaldean.

Zarata indizeen bidez kanpoaldeko zarata mailak ebaluatzen direnean, zarata erasotzailea hartzen da aintzat, hau da, ez da kontuan hartzen parametro bertikalean islatutako zarata.

## B. $L_d$ , $L_e$ eta $L_n$ INDIZEAK KALKULATZEKO METODOAK

Hauek dira  $L_d$ ,  $L_e$  eta  $L_n$  indizeak aztergai den fokuari arabera ebaluatzeko kalkulu gomendatuak:

- *Industria zarata*: ISO 9613-2: «Akustika - Zarata leuntzea kanpoaldera barreiatzen denean, 2.atala: Kalkulatzeko metodo orokorra»

Arau horretan ezarritako metodoa aplikatzeko, zarata igorpenari buruzko datu egokiak (sarrerako datuak) lortu behar dira, beheko arau hauetan azaldutako metodoetako baten bidez neurketak eginez: ISO 8297: 1994, UNE EN ISO 3744: 2011, UNE EN ISO 3746: 2011, edo nazioartean aitortuta duten beste batzuk.

- *Aireontzien zarata*: ECAC.CEAC 29. dok. «Aireportu zibilen inguruan zarata mailak kalkulatzeko metodologia estandarrari buruzko txostena» 1997. Hegaldi ibilbideak modernizatzeko hainbat metodo erabiliko dira, besteak beste, ECAC.CEACen 29.dokumentuko 7.5.atalean aipatutako segmentazio teknika.
- *Ibilgailuen trafikoaren zarata*: «NMPB-Routes-96 (SETRACERTULCPCSTB)» Frantziako kalkulu metodo nazionala da soinu indizeak ebaluatzeko gomendatutako kalkulu metodoa, «Bideko azpiegiturek egiten duten zarata buruzko 1995eko maiatzaren 5eko Ebazpeneko 6. artikulua (1995eko maiatzaren 10eko Aldizkari Ofizialak)» eta «XPS 31-133» Frantziako arauak aipatzen dutena. Igorpenari buruzko sarrera datuei dagokienez, arau horiek agiri hau aipatzen dute: «Lurreko garraioen zarata gida, maila akustikoei aurre hartzeari buruzko atala, CETUR 1980».
- *Trenen zarata*: Herbehereetako kalkulu metodo nazionala: «Reken-en Meetvoorschrift Railverkeerslawaa'96» («Trenbideko garraioaren zarata kalkulatzeko eta neurtzeko gidak, 1996»), Etxebizitza eta Lurralde Plangintzako Ministerioak 1996ko azaroaren 20an argitaratua.

## C. ERAIKINEN BARNEALDEKO NEURKETAK

- Eraikinen barnealdeko neurketak atek eta lehiak itxita daudela egingo dira, eta gutxienez hiru kokagunetan egingo dira. Kokaleku horietan egitea ezinezkoa bada, esparruaren erdian egingo dira.
- Ebaluazio gunerako kokagune aproposenak horma eta beste azaleretatik 1 m-ra eta lurzorutik 1,2 m eta 1,5 m-ra bitartean egingo dira; gutxi gorabehera, leihoetatik 1,5 m-ra. Kokaleku horietan egitea ezinezkoa bada, esparruaren erdian egingo dira.

## D. NEURRIEI EZAR DAKIZKIEKEN ZUZENKETAK

1. *Islapenengatiko zuzenketa*: Fatxada baten edo beste osagai islatzaile baten aurrean egindako neurketan lortutako zarata mailak zuzendu beharko dira, euren eragin islatzaileak ondorioz izan ez dezan. Neurketa zarata fokuari eta fatxada baten aurrean egiten bada, horrekiko distantzia, ahal dela, 1 eta 2 m bitartekoa izango da. Horrek batez besteko balioa -3 dBAn zuzentzea ekarriko du, eta aintzat hartu behar da operatzaileak ezin duela egon soinumetroaren eta fatxadaren artean.

2. Osagai tonal ( $K_t$ ) zein kolpekakoengatiko ( $K_i$ ) eta frekuentzia baxuengatiko ( $K_f$ ) zehapena. Zehapen hori egiteko honako hau hartu beharko da oinarri gisa:

Zarata baten neurketa prozesuan hautematen bada osagai tonal emergenteak, behe frekuentziako osagaiak edo soinu presio handiko eta iraupen gutxiko soinuak daudela (edo osagai horien arteko edozein konbinaketa), kolpekako zarata osagaien presentzia dela medio, zarataren ebaluazio xehatua egin beharko da, dagozkion zuzenketak erantsita (**2. gaikuntza maila**).

$K_t + K_f + K_i$  batzetik eratorritako penalizazioaren gehieneko balioa ez da 9 dB baino handiagoa izango.

2. gaitze mailarako  $K_t$ ,  $K_i$  eta  $K_f$  zehapenen balioak 213/2012 Autonomia Dekretuan ezarritako prozedurari jarraikiz lortuko dira (II. eranskineko 2. atala).

3. *Hondo zarataगतiko zuzenketa:*

Eranskin honetan aipatzen den edozein zarata maila neurtzean ikusten bada neurketa gai den soinu iturriaz kanpoko zarata dagoela eta zara horrek neurketan eragina izan dezakeela, zarata amaiaraztea ezinezkoa bada, hondo zarataren zuzenketa egingo da, ondoren azalduko diren puntuetan adierazitakoari jarraikiz.

Hondo zarata neurtzeko, desagerrarazi egingo da neurketa gai den soinu iturriak eragindako zarata.

Hondo zarata gutxienez martxan dagoen iturriarekin neurtutako zarata maila baino 10 dB(A) txikiagoa bada, ez da beharrezkoa izango hondo zarataren inguruko zuzenketarik egitea.

Bestela, hondo zaratarekin neurtutako batez besteko mailak honi jarraikiz zuzenduko dira:

$$L_{\text{zuzendua}} = 10 \cdot \log(10^{L_{\text{neurtua}}/10} - 10^{L_{\text{HIZ}}/10})$$

Non:

$L_{\text{Zuzendua}}$ :  $L_{\text{AKeq,T}}$  eta  $L_{\text{AFmax}}$ -en maila zuzenduak.

$L_{\text{Neurtua}}$ : Parametro horien maila neurtuak.

$L_{\text{HIZ}}$ : Parametro horien maila neurtuak

## E. JARDUEREK ERAGINDAKO SOINU MAILEI DAGOZKIEN ZARATA INDIZEAK EBALUATZEKO PROZEDURA.

### 1. Neurketetarako prozedura (2. gaikuntza maila):

- Neurketen xedea jarduerak ikuskatzea denean, aire zabalean zein establezimendu edo lokaletan zarata sortzen duten gailuen pertsona edo erakunde titularrek edo erabiltzaileek lagundu beharko diete teknikariei beren instalazioetara edo zarata fokuetara iristen; era berean, gailuak ikuskatzaileek agindutako abiadura, karga edo martxetan jarri beharko dituzte. Titularrek eskubidea izango dute ikuskapen prozesu osoaren lekuko izateko.
- Ebaluazio gunean egingo da zarata fokuek area akustikoen kanpoaldera zein eraikinen barrualdera igorritako zaraten neurketa. Gune hori izango da babestu beharreko eremuaren barruan zarata gehien dagoena eta gune sentikorrena.
- Zarata fokuari ezaugarriak direla medio, ebaluazio aldiaren aldaketa adierazgarriak hautematen badira zarataren igorpen mailan, aldi hori denbora tartetean ( $T_i$ ) edo zarata faseetan ( $i$ ) zatituko da; azken horietan modu uniformearen hautemango da ebaluazio guneko soinu presioaren maila.
- Zarata fokuari funtzionamendu baldintzek hala uzten dutenean,  $L_{\text{Aeq,Ti}}$ -ren hiru neurketa egingo dira zarata fase bakoitzean. Neurketen iraupena eta haien arteko denbora tartea zarata akustikoaren funtzionamendu baldintzetara moldatuko da, azken emaitzak horrek irudikatzen duen funtzionamendu fasea ahal bezain ongien adieraz dezan. Neurketa bakoitza, gutxienez, 30 segundotakoa izan behar da (salbuespen frogatuak izan ezik). Arrazoiketa horiek behar bezala argudiatu eta dokumentatu beharko dira neurketaren emaitzak aurkezteko unean.
- Foku berriei dagokienez, jasotako emaitzei, eranskin honetako D.2 atalean adierazitako zehapenak aplikatuko zaizkie (osagai tonal ( $K_t$ ), zein kolpekakoengatiko ( $K_i$ ) eta frekuentzia baxuengatiko ( $K_f$ ) penalizazioak),  $L_{\text{Keq,Ti}}$  lortuz.

- f) Neurketen emaitzak baliozkoak izango dira muturren arteko aldea 6 dBA edo gutxiagokoa bada, jarduera eten edo ausazkoez osatutako funtzionamendu faseei dagokienez, eta 3 dBA edo gutxiagokoa, berriz, funtzionamendu fase jarraituei dagokienez.
- g) Emaitza guztien batez besteko energetikoa hartuko da neurketako emaitza gisa.
- h)  $L_{K_{eq,T_i}} / L_{A_{eq,T_i}}$  zehazteko orduan, aintzat hartu beharko da hondoko zarataren araberrako zuzenketa.
- i) Denborazko ebaluazio aldiaren  $L_{K_{eq,T}} / L_{A_{eq,T}}$  zehazteko, zenbait neurketa fasetan lortutako  $L_{K_{eq,T_i}}$ -ak eta horien iraupena (ebaluazio aldiaren barruan) hartuko dira kontuan, urteko edo eguneko batez besteko balioek ebaluatzeke helburuarekin, posible balitz.
- j) Zarata fokua funtzionamendu baldintzek hala uzten dutenean,  $L_{A_{max}}$ -aren hiru neurketa egingo dira, gutxienez. Neurtutako mailarik altuena hartuko da emaitza gisa.
- k)  $L_{K_{eq,T}}$  eta  $L_{A_{max}}$ -en azken emaitzetarako zenbaki osoak aurkeztuko dira.

Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskinean xedatutakoa betez egingo da aipatu ebaluazio hori, bai eta UNE ISO 1996-2:2009 arauan (2. atala) eta hori ordeztu nahiz osatzen dutenetan ere.

Instalazioei dagokionez, neurketak, ahal izanez gero, UNE EN ISO 16032 arauak ezarri duen arabera egingo dira, edo hura ordezkatzeko dutena.

## **2. Zaintza neurketetarako prozedura (1. gaikuntza maila)**

- Neurketaren parametroak hauek izango dira:  $L_{A_{eq,T}}$  eta  $L_{A_{Fmax}}$ .
- Ahal den heinean, azterketaren xede den soinu iturria baino ez da ezaugarrituko. No se medirán ruidos variables ni cíclicos.
- Gutxienez, ebaluazio parametroen hiru neurketa egingo dira, eta neurketa aldia neurketaren xedearen adierazle izango da, gutxienez 30 segundotakoa.
- Neurketa egingo den gunea izango da babestu beharreko eremuaren barruan zarata gehien dagoena eta gune sentikorrena.
- Neurketen emaitzak baliozkoak izango dira muturren arteko aldea 6 dBA edo gutxiagokoa bada, jarduera eten edo ausazkoez osatutako funtzionamendu faseei dagokienez, eta 3 dBA edo gutxiagokoa, berriz, funtzionamendu fase jarraituei dagokienez. Aldea handiagoa bada, neurketa sorta berri bat egin beharko da.
- Neurketa bakoitzean lortutako emaitzen berri emango da, ahal dela, maila handienak eragiten dituzten zarata fokua adierazita.
- Neurketa gai den zarata neurtu behar da, eta, ahal bada, baita hondo zarata ere bai (zarata iturria geldi dagoela).
- Kanpoaldeko neurketak neurketa gunetik 50 m-ra baino gehiagora ez dauden fokuetara mugatzen dira. Distantzia luzeagoak direnean, neurketa egin ahal izango da; baina, informatiboa besterik ez da izango. Gainera, nahitaez deskribatu beharko da gutxi gorabeherako distantzia, fokua altuera eta hartzailea, norabidearen eta haizearen abiaduraren gutxi gorabeherako zenbatespena, eta zeruko hodeien estaldura maila.

## **6.- ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA (B17, B18, B 21 eta B22 ERAIKUNTZA UNITATEEI DAGOKIENA). BEHIN BETIKO ONESPENA**

2015eko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea 1-1 AREA —OR ALDE



ZAHARRA — BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETARI. Udalak berak abiarazi zuen espedientea eta B17, B18, B21 eta B22 eraikuntza-unitateei eragiten zien (Kale Nagusia 36 eta 38, eta San Frantzisko kalea 13 eta 15).

Zarauzko Alde Zaharreko Monumentu Multzoaren eta Birgaitze Integratuko Arearen barruan sartuta daude eragindako partzelak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen eta Etxebizitzaren zuzendaritzek plan bereziaren aldaketaren aldeko txostenak idatzi zituzten.

Espedientea jendaurrean egon zen. Epea bukatu ondoren, bi alegazio-idatzi aurkeztu ziren; biak San Frantzisko kalea 13ko jabeenak ziren (B21 EU).

Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak alegazioei buruzko txostena egin, eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaaren informazio-batzordeak eztabaidatu zuen. Alegazioak zati batean onartzea proposatu zen.

Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak testu bategin bat idatzi du, eta hor sartuta daude alegazioak zati batean onartzearen ondorioz proposatutako aldaketak.

Espedienteaz aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatza legez osatzen duten 21 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Luisa-María Eizaguirre andreak aurkeztutako alegazioa onartzea; eta Leticia eta Matilde Eizaguirre andreek aurkeztutako alegazioak zati batean onartzea, honako ondorioekin:

- a) B21 eraikuntza unitatea (San Frantzisko 13).  
Aldaketako dokumentutik kanpo geldituko da, eta indarrean dagoen plan berezian jasotako moduan lagako da haren ordenantza partikularra.
- b) B22 eraikuntza unitatea (San Frantzisko 15).
  1. Mugaketa aldatu da, onartutako alegazioetan eskatutakoaren arabera.
  2. Ordenantza partikularreko 1. grafikoko sekzioaren irudikapena zuzendu da.

Gainontzeko alegazioak ezestea, Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuko txostenean adierazitakoan oinarrituta (0163/2015 txostena, martxoaren 5ekoa).

**Bigarrena.-** Behin betiko onespina ematea 1-1 AREA —OR ALDE ZAHARRA— BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETARI. Udalak abiarazi du espedientea eta B17, B18 eta B22 eraikuntza-unitateei eragiten die (Kale Nagusia 36 eta 38, eta San Frantzisko kalea 13 eta 15).

Onartu den dokumentua 2015eko martxoko testu bategina da, Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak idatzitakoa.

**Hirugarrena.-** Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.”

## **7.- ZARAUZKO BIZIKLETA-BIDE ETA AZPIEGITUREN PLAN BEREZIA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

2014ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onspena ematea ZARAUZKO BIZIKLETA-BIDE ETA AZPIEGITUREN PLAN BEREZIARI. Udalak berak abiarazi zuen plana, eta GEA21 aholkularitzak idatzi zuen dokumentua.

Espedientea jendaurrean egon zen epean alegazio-idatzi bakarra aurkeztu zen. GEA21 aholkularitzak alegazioari buruzko txostena egin zuen, eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak eztabaidatu zuen. Halaber, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak eta Udaltzaingoak planteatutako proposamenak ere eztabaidatu ziren (ibilbide batzuen trazatu, diseinu eta egokitasunari buruzkoak).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak plan bereziaren aldeko txostena egin zuen.

Azkenik, GEA21 aholkularitzak plan bereziaren testuategina aurkeztu zuen. Bertan jasota daude informazio-batzordeak ontzat emandako aldaketak.

Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak testuateginari buruzko txostena egin zuen, eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak eztabaidatu zuen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 11 inegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”-arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** La Salle ikastetxeak aurkeztu zuen alegazioa ezustea, ez delako nahiko arrazoi ikusi La Salle kalea bizikleta-bideen sare nagusian sartzeko.

Hala ere, aitortu behar da ikastetxera iristeko baldintzak hobetu beharra dagoela. Beraz, Udalak konpromisoa hartzen du La Salle ikastetxerako ahalik eta irtenbiderik egokiena bilatzeko, bertako segurtasun eta mugikortasun baldintzak hobetu daitezzen.

**Bigarrena.-** Behin betiko onespena ematea ZARAUZKO BIZIKLETA-BIDE ETA AZPIEGITUREN PLAN BEREZIARI. Udalak abiarazi zuen plan hori.

Onartu den dokumentua 2015eko martxokoa da, hain zuzen ere, GEA21 aholkularitzak egindakoa.

**Hirugarrena.-** Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.”

## **8.- PLANTILLA ORGANIKOAREN ETA LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA**

**I.-** 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu zituen, besteak beste:

**Lehena.-** AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO PROPOSAMENA izeneko dokumentua onartzea eta, ondorioz, UDALAREN ANTOLAKETA 2013 2013I3990038 espedienteari aurkeztutako alegazio, dokumentu eta ziurtagiriei erantzutea.

**Bigarrena.-** Zarauzko Udaleko eta “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoetako ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA onartzea, irizpen honen I. eranskinean jasotzen diren bezala. Lanpostuen deskribapen fitxa berri horiei dagozkien balorazioak ez dira indarrean sartuko Udalbatzarrak onartu artean.

**Hirugarrena.-** II. Eranskinean –TRANSIZIOZKO FUNTZIONAMENDU ALDIA- datozen neurriak onartzea, dokumentu horretan zehazten diren doiketa-beharrei aurre egiteko.

**Laugarrena.-** “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoak desegiteko espedientearen tramiteak hastea, Zarauzko Udalak zerbitzu horien kudeaketa zuzena egin ahal izateko, bere ondorio guztiekin.

**Bosgarrena.-** ZARAUZKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATU ETA ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA: 2014 GIZA BALIABIDE PLANA onartzea (III. eranskin modura jaso da). Programa horretan aurreikusitako efektiboen berresleipenak programa horretan adierazitako fasetan sartuko dira indarrean.

**Seigarrena.-** Zarauzko Udaleko eta, desegin artean, haren erakunde autonomoetako plantillan, lanpostuen zerrendan eta 2009 eta 2011ko lan eskaintza publikoetan egin beharreko aldaketak egin; eta hori guztia lege eta aurrekontu bitartekoen arabera.

**Zazpigarrena.-** Dokumentu hauek eragiten dituzten lanpostu sorrera eta aldaketen ondoriozko jarduera administratiboak abian jar daitezela eskatzea. Alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari ematen zaio onartu diren dokumentuak interpretatzeko eskumena, aldez aurretik Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena eginda.

**Zortzigarrena.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea, eta erakunde autonomoiei, Udal departamentuetako buruei, langileen ordezkarietara eta eragindako langileei jakinaraztea.”

**II.-** 2014ko azaroaren 26an egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak, besteak beste, “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoak desegin zituen, 2014ko abenduaren 31ko ondorio-datarekin; horren

ondorioz, erakunde autonomoetan atxikita dauden langileak Udalaren plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan sartu behar dira, euren egoera juridikoa eta lortutako eskubideak errespetatuta.

**III.-** 2015eko otsailaren 25ean egindako bilkuran, aurrekarien I. puntuko erabakietako berraztertze errekurtsoak, argibide eskaerak, lortutako akordioak eta antzemandako akatsen erabakiak hartu zituen Zarauzko Udaltzarrak. Era berean, erabaki zuen Zarauzko Udaleko plantillan eta lanpostuen zerrendan egin beharreko aldaketak egitea, hartutako akordioek eragindako ataletan; eta hori guztia lege eta aurrekontu bitartekoekin bat etorriz.

**IV.-** Lanpostuen zerrendek une oro antolakuntzaren behar errealak adierazi behar dituzte, eta, beraz, izaera dinamikoa dute, eta etengabe egokitu behar izaten dira Herri Administrazioaren helburuak betetzeko behar aldakorrei erantzuteko.

**IV.-** Zarauzko Udaleko eta Zarautz-Lur, S.A. udal sozietatearen 2015. urteko lanpostuen zerrenda udaleko negoziazio-mahaian aztertu dira, batez ere, negoziatu behar diren baldintzak.

Horiek horrela, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita eta Koordinazioko informazio-batzordeak (pertsonek) irizpena egin ondoren, Udaltzarrak, gehiengoz,

#### ERABAKI DU

**Lehena.-** Zarauzko Udaleko eta Zarautz-Lur, S.A. udal sozietatearen 2015. urteko plantilla organikoa onestea, I. eranskinaren arabera.

**Bigarrena.-** Zarauzko Udaleko eta Zarautz-Lur, S.A. udal sozietatearen 2015. urteko lanpostuen zerrenda onestea, II. eranskinaren arabera.

**Hirugarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, hamabost egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak ebatzteko.

**Laugarrena.-** Aurrekoa bete ostean, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren onespina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai apirilaren 18ko 781/1986 legegintzako errege-dekretuak (toki-araubide arloan indarrean dauden legeko xedapenen testu bategina onartzen duenak) 127. artikuluan, bai uztailearen 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak) 16. artikuluan xedatzen dutenaren arabera.

PLANTILLA ORGANIKOA 2015

UDALA

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO PLAZAK						
GAIKUNTZA NAZIONALEKO ESKALA						
KODEA	IZENA	ZENB.	TALDEA	AKT	HUT.	OHARRAK
IDAZKARITZAKO ASPIESKALA						
1.1.1	IDAZKARI NAGUSIA	1	A1	1	0	
KONTU-HARTZAILTZA / DIRUZAINZA AZPIESKALA						
1.1.2	KONTU-HARTZAILEA	1	A1	0	1	
1.1.3	DIRUZAINA	1	A1	1	0	
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA						
KODEA	IZENA	ZENB.	TALDEA	AKT	HUT.	OHARRAK
TEKNIKARIEN ASPIESKALA						
1.1.4	ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA	4	A1	2	2	Funcionaria en practicas
ADMINISTRARIEN AZPIESKALA						
1.1.5	ADMINISTRARIA	40	C1	26	14	
MENPEKOEN AZPIESKALA						
1.1.8	TELEFONISTA INFORMATZAILEA	1	C2	1	0	Enplegu plana (Haurtzaindegia)
1.1.55	MANDATARI JAKINARAZLEA	1	C2	1	0	
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA						
KODEA	IZENA	ZENB.	TALDEA	AKT	HUT.	OHARRAK
TEKNIKARIEN AZPIESKALA						
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEA						
1.1.9	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (INGENIARIA/ARKITEKTOA)	2	A1	11		
1.1.10	PSIKOLOGOA	1	A1	1	0	Enplegu plana (Haurtzaindegia)
1.1.11	FILOLOGOA	1	A1	1	0	
1.1.42	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (PSIKOLOGOA/SOZIOLOGOA)	1	A1	0	1	
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEA						
1.1.12	ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	15	A2	6	9	
1.1.13	GIZARTE LAGUNTZAILEA	6	A2	42		
TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN KLASEA						
1.1.14	DELINEATZAILEA	2	C1	2	0	
ZERBITZU BEREZIETAKO TEKNIKARIEN AZPIESKALA						
ZEREGIN BEREZIETAKO KLASEA						
1.1.18	EKONOMIAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	1	0	
1.1.19	EUSKALTEGIKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	6	A2	4	2	
1.1.20	HAURTZAINDEGIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	5	A2	5	0	Enplegu plana (Haurtzaindegia)
1.1.22	ZERGA-BILTZAILE/AGENTE EXEKUTIBOA	1	C1	1	0	
1.1.23	ITZULTZAILEA	3	C1	1	2	
1.1.24	INFORMATIKAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.26	ERAKUSKETETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	1	0	A extinguir tras el proceso de "Promoción interna"
1.1.29	OROKIETAKO ETXEZAINA	1	E	0	1	
1.1.44	ERRENTA ETA ORDAINARAZPENETAKO ERDI- MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	1	0	
1.1.45	KULTURAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	A2	1	0	

1.1.46	LIBURUTEGIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	4	C1	3	1	
1.1.47	INFORMATIKAKO LAGUNTZAILEA	1	C2	1	0	
1.1.56	KIROLETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	2	C1	2	0	
1.1.57	MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	01		
<b>UDALTZAINGOKO KLASEA</b>						
1.1.15	OFIZIALORDEA	1	C1	1	0	
1.1.16	LEHEN-MAILAKO UDALTZAINA	6	C1	6	0	
1.1.17	UDALTZAINA	31	C1	20	11	
<b>OFIZIOETAKO LANGILEEN KLASEA</b>						
1.1.30	PROIEKTUETAKO ARDURADUN KOORDINATZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.34	ERAIKUNTZETAKO ZAINZAILEA	1	C2	1	0	
1.1.38	OFIZIAL LOREZAINA	1	C2	1	0	"Barne-sustapen" prozesua egin ondoren desagertzekoa
1.1.49	BRIGADAKO ARDURADUNA	1	C1	1	0	
1.1.50	OFIZIAL IGELTSEROA	3	C1	3	0	
1.1.51	OFIZIAL ARGIKETARIA	2	C1	2	0	
1.1.52	OFIZIAL ITURGINA	2	C1	2	0	
1.1.53	OFIZIAL LOREZAINA	1	C1	0	1	
1.1.54	BIGARREN MAILAKO OFIZIALA	5	C2	1	4	
	OFICIAL POLIVALENTE (conductor)	1	C1	0	1	
1.1.58	MUNTATZE-LANETAKO ARDURADUNA	1	C1	1	0	
1.1.59	MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEA	4	C2	4	0	
1.1.60	HARRERAGILEA	1	C2	1	0	

<b>BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETAKO PLAZAK</b>						
KODEA	IZENA	ZENB.	TALDEA	AKT	HUT.	OHARRAK
1.2.2	ALKATEAREN IDAZKARIA	1	C1	1	0	
1.2.4	HERRITARREN SEGURITASUNENKO OFIZIAL ARDURADUNA	1	C1	1	0	
1.2.5	TALDE POLITIKOKO IDAZKARIA	3	C2	3	0	%100, %50 eta %15

### ZARAUTZ-LUR

<b>LAN-LEGEPEKOAK</b>						
KODEA	IZENA	ZENB.	TALDEA	AKT	HUT.	OHARRAK
1.7.2	ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA	1	A1	0	1	
1.7.4	ADMINISTRARIA	1	C1	0	1	

**2015eko LANPOSTUEN ZERRENDA**

**ZARAUZKO UDALA**

**FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.1	Idazkari nagusia	1	B	N	A1	28	25.382,20	00	580	Gaikuntza nazionala (##)	4	1994/12/31	1	2.2
1.1.9	Ebazpen organoetako administraria	1	E	L	C1	17	14.869,66	12	300		3	2003/01/30	1	1
1.1.15	Jakinarezlea	1	E	L	C2	15	12.299,11	14	200		2	1990/12/31	1	1
1.1.4	Zerbitzu juridikoetako AOT (Kontratazioa eta Ondarea)	1	E	L	A1	23	20.145,38	11	570		4	2007/02/14	1	1
1.1.13	Zerbitzu juridikoetako administraria (Kontratazioa eta Ondarea)	1	E	L	C1 A2(#)	16 18	14.064,63 12.382,43	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.180	Zerbitzu juridikoetako AOT (ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena)	1	E	L	A1	23	20.145,38	11	570		4	2008/01/25	1	1
1.1.161	Itzulpenetako koordinatzailea	1	E	L	C1/A2	20	17.876,07	22	300		4 (TG)		1	1
1.1.6	Itzultzailea	2	E	L	C1/A2	18	15.727,87	22	300		4 (TG)		1	1
1.1.8	Estatistika eta Erroldako koordinatzailea	1	E	L	C1	18	15.727,87	12	300		3	2003/01/30	1	1
1.1.11	Estatistika eta Erroldako administraria	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2003/01/30	1	1
1.1.10	Erregistroko administraria	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2003/01/30	1	1

DEPARTAMENTUA: ZERBITZU EKONOMIKOAK/KONTU-HARTZAILTZA (0301)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.16	Kontu-hartzailea	1	B	N	A1	26	25.433,03	01	550	Gaikuntza nazionala (##)	4	1990/12/31	1	2.2
1.1.17	Kontabilitate eta Aurrekontuetako teknikaria	1	E	L	A2	21	15.659,37	22	400		3	2001/12/26	1	1
1.1.19	Kontabilitate eta Aurrekontuetako administraria	1	E	L	C1	18	14.263,47	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.23	Kontu-hartzailetzako administraria	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.18	Errentetako teknikaria	1	E	L	A2	20	19.546,05	22	400		3	1995/03/09	1	1
1.1.20	Errentetako administraria	1	E	L	C1	18	14.263,47	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.129	Errentetako administraria	2	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2013/12/18	1	1

DEPARTAMENTUA: ZERBITZU EKONOMIKOAK/DIRUZAINTZA (0302)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.24	Diruzaina	1	B	N	A1	25	23.750,65	01	550	Gaikuntza nazionala (##)	4	1994/12/31	1	1

1.1.26	Diruzaintzako administraria	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.25	Zerga-biltzailea	1	E	L	C1	20	17.876,07	22	300		3	2014/12/17	1	3
1.1.27	Zerga-bilketako administraria (1 zk.)	1	E	L	C1	18	14.263,47	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.28	Zerga-bilketako administraria (2 zk.)	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2013/12/18	1	1

DEPARTAMENTUA: HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK (04)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.29	Bulego Teknikoko arduraduna	1	B	I	A1	25	25.403,21	21	500		4	1994/12/31	1	1
1.1.159	Eraikuntzetako teknikaria	1	E	L	A2/A1	21	17.329,36	22	493		3	2009/03/03	1	1
1.1.33	Urbanizazioetako teknikaria	1	E	L	C1/A2	19	16.639,25	22	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.34	Zerbitzuetako teknikaria	1	E	L	A2/A1	19	18.330,03	22	400		3	2013/12/18	1	1
1.1.130	Delineatzailea	2	E	L	C1	18	14.263,47	21	325		2	1999/01/01	1	1
1.1.35	Bulego Teknikoko administraria	1	E	L	C1	18	14.263,47	12	300		3	2007/12/31	1	1
1.1.30	Mantentze-lanetako arduraduna	1	E	L	A2/A1	21	17.329,36	22	493		3	1995/03/09	1	1
1.1.142	Mantentze-lanetako eta Brigadako administraria	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.38	Brigadako enkargatua	1	B	L	C1	19	18.330,03	22	300		3	2014/12/17	1	1
1.1.131	Ofizial elektrikaria	2	E	L	C1	17	14.869,66	22	326 + CF		1	1990/12/31 2001/12/26	1 1.2	2.1
1.1.132	Ofizial iturgina	2	E	L	C1	17	14.869,66	22	300 + CF		1	1990/12/31 1999/05/01	1	2.1
1.1.133	Ofizial igeltseroa	3	E	L	C1	17	14.869,66	22	300		1	2013/12/18 1999/05/01 2008/07/30	1	1
1.1.48	Zeregin anitzeko ofiziala-gidaria	1	E	L	C1	15	12.299,11	22	300		1	2013/12/18	1	1
1.1.165	2.mailako ofizial elektrikaria	1	E	L	C2	15	12.299,11	22	200		1	2001/12/26	1	1
1.1.166	2.mailako ofizial iturgina	1	E	L	C2	15	12.299,11	22	200		1	2001/12/26	1	1
1.1.167	2.mailako ofizial igeltseroa	3	E	L	C2	15	12.299,11	22	200		1	2001/12/26	1	1
1.1.45	Lorategietako arduraduna	1	E	L	C1	17	14.869,66	22	300 + CF		1	1990/12/31	1	1

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.63	Gizarte Zerbitzuetako arduraduna	1	B	I	A1	21	15.228,38	21	536/534		4	2009/03/03	1	2.3
1.1.135	Oinarrizko gizarte-langilea	4	E	L	A2	20	16.200,61	21	432		3	1993/12/31 2001/12/26 2005/12/26 2008/01/25	1	1
1.1.168	Programa berezietako gizarte-langilea	2	E	L	A2	20	16.200,61	21	432		3	1993/12/31	1	1



												2001/12/26		
1.1.156	Gizarte Zerbitzuetako administraria	2	E	L	C1	18	15.727,87	12	300		3	2009/03/03	1	1
1.1.136	Gizarte Zerbitzuetako administraria	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2003/01/30	1	1
	Gizarte Zerbitzuen koordinaziorako administraria (%50)	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2007/02/14	1	1
1.1.151	Ekintza soziokomunitarioko teknikaria	1	E	L	A2	20	16.200,61	21	400		4	2008/01/25	1	1

(\*) "Programa berezietako gizarte-langile" lanpostuetako bat amortizatu egin beharko da, "Koordinaziorako gizarte-langile" lanpostua betetzen denean, Udalbatzarrak 2014ko irailaren 24an onartu zuen trantsizio-aldiarekin bat etorrira.

Koordinaziorako gizarte-langilea	1	N	L	A2	20	16.200,61	21	432		4	2017/12/17	1	1
----------------------------------	---	---	---	----	----	-----------	----	-----	--	---	------------	---	---

(\*) "Koordinaziorako gizarte-langile" lanpostua sortzen da. Lanpostu hori betetakoan, "Programa berezietako gizarte-langile" lanpostuetako bat amortizatu beharko da, Udalbatzarrak 2014ko irailaren 24an onartu zuen trantsizio-aldiarekin bat etorrira.

**DEPARTAMENTUA: KULTURA - KULTURA ZERBITZUAK (06)**

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.73	Kulturako arduraduna	1	B	I	A1/A2	21	20.674,80	22	500/400		4	1994/12/31	2	2.1
1.1.76	Kultur dinamizatzailea	1	E	L	C1/A2	18	15.727,87	12	300		3	2007/02/14	1	2.3
1.1.74	Kultur ondarearen, artearen eta museoen kudeatzailea (*)	1	E	L	A2/C1	18	15.727,87	22	300		3	1990/08/31	2	1
1.1.80	Kulturako administraria	1	E	L	C1	17	14.869,66	12	300		3	2003/01/30	2	1

(\*) Soil-soilik Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioentzat

**DEPARTAMENTUA: KULTURA.- UDAL LIBURUTEGIA (06)**

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.75	Liburutegiko arduraduna (*)	1	B	I	A1	18	15.954,25	22	516		4	2014/12/17	2	1
1.1.137	Liburutegiko teknikari laguntzailea	4	E	L	C1 A2(#) C1(**)	16 18 18	14.064,63 12.382,43 14.064,63	22	300		3	1990/12/31 1991/12/31 2001/12/26 2011/03/18	2	1

(\*) Lanpostu hau, aldi baterako, eta harik eta behin betiko bete arte, C1 sailkapen-taldera irekita egongo da, Udalbatzarrak 2014ko irailaren 24an onartu zuen trantsizio-aldiarekin bat etorrira. Ondoren, dagokion balorazioak ezartzen dituen ordainsarietara egokitu beharko da.

(\*\*) G.G.L. langilearen gradu pertsonala kontsolidatzea.

DEPARTAMENTUA: EUSKARA (07.01)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.181	Euskarako arduraduna	1	B	I	A1	21	15.228,38	21	515		4(TG)		1	1
1.1.144	Hizkuntza normalizatzailea	1	E	L	A2	18	12.382,43	21	400		4(TG)		1	1
1.1.181	Hizkuntza trebatzaile-normalizatzailea	1	E	L	A2	18	12.382,43	21	400		4(TG)		1	1
1.1.182	Euskarako administraria	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2001/12/26	1	1

DEPARTAMENTUA: EUSKALTEGIA (07.02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.183	Euskaltegiko zuzendaria	1	B	I	A2	20	16.200,61	22	400		4(TG)		1	1
1.1.138	Euskaltegiko irakaslea	4	E	L	A2	18	12.382,43	21	400		4(TG)		2	1
1.1.187	Euskaltegiko administraria (%50)	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	1990/08/31	1	1

DEPARTAMENTUA: HEZKUNTZA (08)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.154	Hezkuntzako arduraduna	1	E	L	A2/A1	20	16.200,61	21	400		4	2008/01/25	1	1
1.1.143	Hezkuntzako administraria (%50)	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	1990/08/31	1	1
1.1.139	Eskola instalazioetako zainzailea	1	E	L	AP	15	12.299,11	22	100		1	1990/12/31	2	1

DEPARTAMENTUA: UDALTZAINGOA (09)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.191	Udaltzaingoko ofizialordea	1	B	I	C1	22	21.696,02	22	300		4	2007/12/31	1	1
1.1.140	Lehen mailako udaltzaina (*)	1	E				25.330,45						3	
		2	B				22.573,02						3*	
		3	B	L	C1	20	19.566,85	22	300		3	2017/12/17	2	1
		4	E				25.330,45						3	
		5	E				25.330,45						3	
		6	E				25.330,45						3	
1.1.141	Udaltzaina (**)	1	E				18.417,87						3	
		2	B				13.686,07						3*	
		3	E				18.417,87						3	
		4	B	L	C1	17	13.686,07	22	300		2	1990/12/31	3*	1
		5	E				18.417,87						3	
		6	E				18.417,87						3	
		7	E				18.417,87						3	

		8	B				13.686,07					1990/12/31	3	
		9	E				18.417,87					1991/12/31	3	
		10	E				18.417,87					1993/12/31	3	
		11	E				18.417,87					1994/12/31	3	
		12	E				18.417,87					2001/12/26	3	
		13	E				18.417,87					2001/12/26	3	
		14	E				18.417,87					1999/05/01	3	
		15	E				18.417,87					1999/05/01	3	
		16	E				18.417,87					1999/05/01	3	
		17	E				18.417,87					1999/05/01	3	
		18	E				18.417,87					1999/05/01	3	
		19	E				18.417,87					1999/05/01	3	
		20	E				18.417,87					2000/01/01	2*	
		21	B				13.686,07					2000/01/01	3	
		22	E				18.417,87					2001/12/26	3	
		23	E				18.417,87					2001/12/26	3	
		24	E				18.417,87					2004/12/29	3	
		25	E				18.417,87					2004/12/29	3	
		26	E				18.417,87					2004/12/29	3	
		27	E				18.417,87					2004/12/29	3	
		28	E				18.417,87					2008/01/25	3	
		29	E				18.417,87					2008/01/25	3	
		30	E				18.417,87					2008/01/25	3	
1.1.98	Udaltzaingoko administraria	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.99	Isunetako eta sarbideen kontroleko administraria	2	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2013/12/18	1	1

(\*) "Lehen mailako udaltzain" lanpostu bat amortizatu egin beharko da "Atestatuen koordinaziorako lehen mailako udaltzain" lanpostua betetzen denean, Udaltzarrak 2014ko irailaren 24an onartu zuen trantsizio-aldiarekin bat etorrira.

(\*\*) Hamabost "Udaltzain" lanpostu amortizatu egin beharko dira, "Bide-heziketako udaltzaina", "Mantentze-lanetako udaltzaina" eta "Atestatuetako udaltzaina" lanpostuak betetzen direnean, Udaltzarrak 2014ko irailaren 24an onartu zuen trantsizio-aldiarekin bat etorrira.

	Atestatuen koordinaziorako lehen mailako udaltzaina (*)	1	B	L	C1	20	19.566,85	22	300		3	2017/12/17	2	1
	Bide-heziketako udaltzaina (*)	2	B	L	C1	17	13.686,07	22	300		3	2017/12/17	2*	1
	Mantentze-lanetako udaltzaina (*)	3	B	L	C1	17	13.686,07	22	300		2	2017/12/17	3*	1

	Atestatuetakoko udaltzaina (*)	10	E	L	C1	17	18.417,87	22	300		3	2017/12/17	3	1
--	--------------------------------	----	---	---	----	----	-----------	----	-----	--	---	------------	---	---

(\*) "Atestatuen koordinaziorako lehen mailako udaltzaina", "Bide-heziketako udaltzaina", "Mantentze-lanetako udaltzaina" eta "Atestatuetakoko udaltzaina" lanpostuak sortzen dira. Lanpostuok betetakoan, "Lehen mailako udaltzain lanpostu" bat eta hamabost "Udaltzain" lanpostu amortizatu beharko dira, Udaltzarrak 2014ko irailaren 24an onartu zuen trantsizio-aldiarekin bat etorrita.

**DEPARTAMENTUA: GAZTERIA (10)**

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.155	Gazteriako arduraduna	1	E	L	A2/A1	20	16.200,61	21	400		4	2004/10/27	2	1
1.1.153	Gazteriako administraria (%50)	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2008/01/25	1	1

**DEPARTAMENTUA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA (11)**

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.54	Hirigintza eta Ingurumeneko arduraduna	1	B	I	A1	25	25.403,21	11	570		4	1990/08/31	1	2.2
1.1.55	Arkitektoa	1	E	L	A1	24	21.095,28	21	549		4	2004/12/29	1	1
1.1.57	Arkitekto teknikoa	2	E	L	A2	21	17.329,36	21	493		3	1990/12/31	1	1
2008/01/25												1	1	
1.1.56	Ingurumeneko teknikaria	1	E	L	A2	20	14.530,63	21	400		4	2013/12/18	1	1
1.1.59	Hirigintza eta Ingurumeneko administraria	3	E	L	C1	18	14.263,47	12	300		3	2004/12/29	1	1
1.1.61					C1	16	14.064,63					2013/12/18		
					A2(#)	18	12.382,43					2013/12/18		
1.1.62	Obra eta jardueren zainzailea	1	E	L	C2/C1	16	14.064,63	22	200		2	1995/03/09	1	1

**DEPARTAMENTUA: PARTAIDETZA ETA AGENDA 21 (12)**

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.160	Partaidetza eta Agenda 21eko arduraduna	1	E	L	A2/A1	21	15.659,37	21	400		4	2014/12/17	1	1
1.1.164	Partaidetza eta Agenda 21eko administraria	1	E	L	C1	18	15.727,87	12	300		3	2011/03/18	1	1

**DEPARTAMENTUA: BERDINTASUNA (13)**

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.152	Parekidetasuneko arduraduna	1	E	L	A2/A1	20	16.200,61	21	400		4	2005/12/26	1	1
1.1.162	Parekidetasuneko administraria (%50)	1	E	L	C1	16	14.064,63	12	300		3	2007/02/14	1	1

DEPARTAMENTUA: KIROLA (14)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.174	Kiroletako arduraduna	1	B	I	A2/A1	21	17.329,36	21	495		4	2007/12/31	2	2.2
1.1.175	Kiroletako teknikari laguntzailea	1	E	L	C1	18	14.263,47	22	300		3	2007/12/31	1	2.3
1.1.176	Kirol-instalazioetako administraria	1	E	L	C1	17	14.869,66	22	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.177	Kiroletako administraria	1	E	L	C1	17	14.869,66	12	300		3	2003/01/30	1	1
1.1.178	Kirol-instalazioen mantentze-lanetako arduraduna	1	E	L	C1	18	15.727,87	22	300		2	2003/01/30	1	2.1
1.1.179	Kirol-instalazioen mantentze-lanetako 2.mailako ofiziala	4	E	L	C2	16	14.064,63	22	200		1	1993/12/31 1993/07/22 2007/02/14 2008/01/25	1	2.2 2.2 2.3 2.3

DEPARTAMENTUA: TURISMOA, EKITALDIAK ETA JAIK (15)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.171	Turismoko arduraduna	1	B	I	A2/A1	21	17.329,36	21	400		4	2007/12/31	2	2.1
1.1.172	Turismoko teknikari laguntzailea	3	E	L	C1	18	14.263,47	12	300		3	2001/12/26 1993/06/30 1993/06/30	2	1 2.2 1
1.1.173	Muntatze-lanetako arduraduna	1	E	L	C1	17	14.869,66	22	300		2	2013/12/18	2	2.1
1.1.183	Ekitaldi eta jaietako koordinatzailea (*)	1	N	C	A2	21	17329,36	22	400		3	2014/12/17	2	2.1

(\*) Langileen berresleipenaren bidez hornituko da lanpostu hau, Udalbatzarrak 2015eko otsailaren 25ean hartutako erabakiarekin bat etorrita.

DEPARTAMENTUA: HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (16)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.169	Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko arduraduna	1	B	I	A1	23	20.145,38	21	536		4	2014/11/26	2	1
1.1.170	Herritarren Arreta Zerbitzuko agentea - informatzailea (*)	5	E	L(*)	C1/C2	18	15.727,87	12 14	300 200		3	2014/11/26	2	1

(\*) Soil-soilik Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioentzat eta "Zarauzko Kirol Patronatua" eta "Zarauzko Turismo Bulegoa" erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat.

DEPARTAMENTUA: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (17)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.5	IKTko teknikari laguntzailea	1	B	L	C1	20	17.876,07	22	300		3	2003/01/30	1	2.3
1.1.12	IKTko laguntzailea	1	E	L	C2	16	14.775,55	22	200		3	2003/01/30	1	1

DEPARTAMENTUA: GIZA-BALIABIDEAK (18)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.2	Giza Baliabideetako arduraduna	1	E	L	A1	23	20.145,38	11	570		4	2003/01/30	1	2.3
1.1.163	Nominetako administraria	1	E	L	C1	18	15.727,87	12	300		3	2012/12/31	1	1
1.1.3	Giza Baliabideetako administraria	1	E	L	C1	17	14.869,66	12	300		3	2007/12/31	1	1

DEPARTAMENTUA: DOKUMENTAZIOA (19)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.1.7	Dokumentazioko administraria	1	E	L	C1	18	14.263,47	12	300		3	2001/12/26	1	1

(#) Udal Haurtzaindegiko Enplegu Planetik datozen langileek betetako postuak, orain betetzen ari diren lanpostuak baino maila handiagoa zutenak.

DED - Aztartzeko dago (lanpostuen balorazioarekin batera zehaztuko da)

Baldintza bereziak: ZARAUZKO UDALEKO LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUAN adierazitakoak; Udalbatzarrak 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran eman zion hasierako onespena eskuliburu horri, eta 2015eko otsailaren 25ean onartu zuen behin betiko.

(##) Gaikuntza nazionala

MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK, IZAERA NAZIONALEKO GAIKUNTZA DUTEN TOKI ADMINISTRAZIOETAKO FUNTZIONARIOENTZAT ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK BETETZEKO

1.- Administrazioan eskainitako zerbitzuak (1,30 puntu arte)

- EAEn edota Nafarroako Foru Erkidegoan, Azpieskalaren barnean betetakoak: urte bakoitzeko 0,20 puntu, gehienez 0,60 puntu.
- EAEn edota Nafarroako Foru Erkidegoan, beste Azpieskala batean betetakoak: urte bakoitzeko 0,10 puntu, gehienez 0,60 puntu.
- EAEtik edota Nafarroako Foru Erkidegotik kanpora, Azpieskalan betetakoak: urte bakoitzeko 0,02 puntu, gehienez 0,1 puntu

2.- Ikastaroak eta gainerako prestakuntza ekintzak (0,20 arte):

Ikastaro, mintegi, jardunaldi, sinposio edota lanpostuan jarduteko gaitasun handiagoa lortzera bideratutako bestelako prestakuntza eta hobekuntza ekintzak, erakunde ofizialetan emandakoak badira.

Puntuazioa: 20 ordu edo gehiagoko ikastaro edo prestakuntza-ekintza bakoitzeko 0,02 puntu, gehienez 0,20 puntu.

**BIGARREN JARDUERARAKO GORDETAKO LANPOSTUAK**

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.3.130	Jakinarazlea	1	E	L	C2	15	12.299,11		200		2	2011/03/18	1	1

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.3.1	Ekintza soziokomunitarioko administraria (%50) Immigrazio eta kultur aniztasuneko administraria (%50)	1	E	I	C1 A2 (#)	16 18	14.064,63 12.382,43	12	200		3	2013/12/18	1	1

DEPARTAMENTUA: KULTURA.- UDAL LIBURUTEGIA (06)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.3.128	Kultur eraikinetako zaintzailea	1	E	I	C2	15	12.299,11 13.675,53	22	100		2	2011/03/18	2	1

DEPARTAMENTUA: HEZKUNTZA (08)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.3.129	Eskola instalazioetako zaintzailea	1	E	L	AP	15	12.299,11	22	100		1	2007/02/14	2	1

**BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.2.7	Alkatearen idazkaria	1	B	I	C1	14	10.275,97		300		3		1	1
1.2.8	Talde politikoko idazkaria (%100 eta %15)	2	B	I	C2	19	25.010,24		200		3		1 1	1
1.2.8	Talde politikoko idazkaria (%50)	1	B	I	C2	16	14.064,68		200		3		1	1
1.2.6	Herritarren segurtasuneko ofizial arduraduna	1	B	I	C1	22	32.852,19		300		3	2011/03/18	1	2.2

**ALDI BATERAKO LANPOSTUAK**

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.9	Errefortzuko administraria (6 hilabete)	1	E		C1	17	14.869,68		300		3		1	1

DEPARTAMENTUA: EKONOMIA/KONTU-HARTZAILITZA ETA ERRENTAK ETA ORDAINARAZPENAK (0301)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.18	Plusbalioetako administraria (3 hilabete)	1	E		C2	16	14.064,68		200		3		1	1
1.4.15	Inbentarioko administraria (6 hilabete)	1	E		C2	16	14.064,68		200		3		1	1

DEPARTAMENTUA: HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK (04)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.16	Herrilanerako teknikari laguntzailea	1	E		C1	19	16.639,25		300		3		1	1

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.6	Immigrazioko eta kultur aniztasuneko teknikaria	1	E		A2	20	16.200,61		400		4	2014/12/17	1	1
1.4.13	Gizarte-langilea (genero-indarkeria)	1	E		A2	20	16.200,61		432		3		1	1

DEPARTAMENTUA: KULTURA - KULTURA ZERBITZUAK (06)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.14	Kultur jardueren kudeaketa administraria (6 hilabete)	1	E	L	C1	18	15.727,87	12	300		3		2 (%50)	2.3

DEPARTAMENTUA: KULTURA.- UDAL LIBURUTEGIA (06)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.26	Liburutegiko teknikari laguntzailea (8 hilabete)	1	B		C1	18	15.954,25		300		3		2	1



DEPARTAMENTUA: EUSKARA. EUSKALTEGIA (07.02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (%100)	3	E		A2	18	12.382,43		400		4(TG)		2	1
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (%66,66)	2	E		A2	18	12.382,43		400		4(TG)		2	1
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (%50)	2	E		A2	18	12.382,43		400		4(TG)		2	1
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (%30)	1	E		A2	18	12.382,43		400		4(TG)		2	1
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (%37)	1	E		A2	18	12.382,43		400		4(TG)		2	1

DEPARTAMENTUA: UDALTZAINGOA (09)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.1	Udako udaltzaina (4 hilabete)	12	E		C2	16	14.064,68		200		2		3	1
1.4.4	Bitarteko udaltzainak	8	E		C1	17	18.417,87		300		2		3	1

DEPARTAMENTUA: TURISMOA, EKITALDIAK ETA JAIK (15)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.30	Turismoko laguntzaileak	2	E		C2	16	14.064,63		200		3		2	1

DEPARTAMENTUA: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (17)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.4.21	Informazio eta Komunikazio Teknologietako (IKT) arduraduna	1	B		A1	23	20.145,38		545/548		4		1	1

“ZARAUTZ-LUR SA” UDAL SOZIJETATEA

LAN KONTRATUDUN LANGILEENTZAT GORDEAKO LANPOSTUA

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	Titulazioa	Baldintza bereziak	HE	Derr. data	LA	DED
1.11.2	Arduradun juridikoa	1	B	I	A1	24	24.400,25		570		4	2009/02/27	2	2
1.11.3	Administrataria (%50)	1	E	L	C1	16	12.373,85		300		3	2014/12/17	2	1



## 9.- KARRERAKO BI FUNTZIONARIORI GRADU PERTSONALA ERREKONAZITZEA

### a) Fernando Llopi Lucas

(2015 I 399 0016 espedientea)

I.- 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu zituen, besteak beste:

**Lehena.**- AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO PROPOSAMENA izeneko dokumentua onartzea eta, ondorioz, UDALAREN ANTOLAKETA 2013 2013I3990038 espedienteari aurkeztutako alegazio, dokumentu eta ziurtagiriei erantzutea.

**Bigarrena.**- Zarauzko Udaleko eta “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoetako ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA onartzea, irizpen honen I. eranskinean jasotzen diren bezala. Lanpostuen deskribapen fitxa berri horiei dagozkien balorazioak ez dira indarrean sartuko Udalbatzarrak onartu artean.

**Hirugarrena.**- II. Eranskinean –TRANSIZIOZKO FUNZIONAMENDU ALDIA- datozen neurriak onartzea, dokumentu horretan zehazten diren doiketa-beharrei aurre egiteko.

**Laugarrena.**- “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoak desegiteko espedientearen tramiteak hasia, Zarauzko Udalak zerbitzu horien kudeaketa zuzena egin ahal izateko, bere ondorio guztiekin.

**Bosgarrena.**- ZARAUZKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATU ETA ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA: 2014 GIZA BALIABIDE PLANA onartzea (III. eranskin modura jaso da). Programa horretan aurreikusitako efektiboen berresleipenak programa horretan adierazitako fasetan sartuko dira indarrean.

**Seigarrena.**- Zarauzko Udaleko eta, desegin artean, haren erakunde autonomoetako plantillan, lanpostuen zerrendan eta 2009 eta 2011ko lan eskaintza publikoetan egin beharreko aldaketak egin; eta hori guztia lege eta aurrekontu bitartekoen arabera.

**Zazpigarrena.**- Dokumentu hauek eragiten dituzten lanpostu sorrera eta aldaketen ondoriozko jardura administratiboak abian jar daitezela eskatzea. Alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari ematen zaio onartu diren dokumentuak interpretatzeko eskumena, aldeztatik Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena eginda.

**Zortzigarrena.**- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea, eta erakunde autonomoek, Udal departamentuetako buruei, langileen ordezkariak eta eragindako langileei jakinaraztea.”

II.- 2015eko otsailaren 25ean egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu zituen, besteak beste:

**Hamaikagarrena.**- Eider Illarramendi Azkue andreak eta Fernando Llopi Lucas jaunak lortutako akordioaren zati bat berrestea, “AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA” dokumentuan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, honako hau adieraztea: Gradu pertsonalari, dedikazioari eta prestasunari dagokionez, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 15 eta 16 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Lanpostuen Zerrendan adierazitako lanpostuari jarritako sailkapenari dagokion maila (1etik 30era), eta horrek “ad hoc” egindako prozedura bat behar du (hasierako onespena, jendaurrean jartzea, etab.). Gaur egun negoziazio fasean dagoenez udal antolaketa berriak behar duen lanpostu-zerrenda, lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen zeregina izango da erreklamatzailaren eskaera aztertzea eta, hala badagokio, hura onartzea edo baztertzea.

**III.-** 1994ko abenduaren 29an egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak onartu zuen, besteak beste, Fernando Llopis Lucas jaunaren behin-behineko atxikipena Kulturako Zuzendari lanpostura, izendapen librearen bidez. Geroago, 1999ko maiatzaren 6an egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak haren behin betiko atxikipena onartu zuen.

**IV.-** 2012ko urriaren 31n egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen, besteak beste, ordainsariak egokitzea abenduaren 22ko 343/1992 Dekretura (Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Soldatei buruzko Dekretua aldatzen duena).

**V.-** Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 45. artikuluan honakoa xedatzen du:

1. Funtzionario guztiek izango dute bere gradua, lanpostuak sailkatzen direneko hogeita hamar mailetariko bat hain zuzen.
2. Dagokion mailako lanpostu bat edo gehiago bi urte edo gehiago jarraian edo hiru urte tarteari eginez betez eskuratzen da norbere gradua.
4. Ezingo da inola ere sendotu funtzionarioa sartuta dagoeneko Taldeari dagokion tarteari gehieneko mailaz goitiko norbere gradurik.
5. Funtzionarioa lanposturen baten ari dadin bitartean lanpostu horren maila aldatzen bada, hor izan den denbora lanpostu horrek izan duen sailkapen-mailarik handienez neurtuko da.

**VI.-** Hortaz, funtzionarioak indarrean dauden Euskal Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako 21 mailari dagokion gradu pertsonala errekonozitzeko baldintzak betetzen ditu, aurretik aipatu den epetik aurrera etenik gabe betetzen ari baita lanpostu hori.

Horiek horrela, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita eta Koordinazioko informazio-batzordeak (pertsonala) irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

FERNANDO LLOPIS LUCAS jaunari Euskal Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako 21 mailari dagokion gradu pertsonala errekonozitzea.

#### **b) Gema Garratazu Letemendia**

**I.-** 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu zituen, besteak beste:

**“Lehena.-** AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO PROPOSAMENA izeneko dokumentua onartzea eta, ondorioz, UDALAREN ANTOLAKETA 2013 2013I3990038 espedienteari aurkeztutako alegazio, dokumentu eta ziurtagiriei erantzutea.

**Bigarrena.-** Zarauzko Udaleko eta “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoetako ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA onartzea, irizpen honen I. eranskinean jasotzen diren bezala. Lanpostuen deskribapen fitxa berri horiei dagozkien balorazioak ez dira indarrean sartuko Udalbatzarrak onartu artean.

**Hirugarrena.-** II. Eranskinean –TRANSIZIOZKO FUNTZIONAMENDU ALDIA- datozen neurriak onartzea, dokumentu horretan zehazten diren doiketa-beharrei aurre egiteko.

**Laugarrena.-** “Zarauzko Turismo Bulegoa” eta “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoak desegiteko espedientearen tramiteak hastea, Zarauzko Udalak zerbitzu horien kudeaketa zuzena egin ahal izateko, bere ondorio guztiekin.

**Bosgarrena.-** ZARAUZKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATU ETA ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA: 2014 GIZA BALIABIDE PLANA onartzea (III. eranskin modura jaso da). Programa horretan aurreikusitako efektiboan berresleipenak programa horretan adierazitako fasetan sartuko dira indarrean.

**Seigarrena.-** Zarauzko Udaleko eta, desegin artean, haren erakunde autonomoetako plantillan, lanpostuen zerrendan eta 2009 eta 2011ko lan eskaintza publikoetan egin beharreko aldaketak egin; eta hori guztia lege eta aurrekontu bitartekoen arabera.

**Zazpigarrena.-** Dokumentu hauek eragiten dituzten lanpostu sorrera eta aldaketen ondoriozko jarduera administratiboak abian jar daitezela eskatzea. Alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari ematen zaio onartu diren dokumentuak interpretatzeko eskumena, aldez aurretik Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena eginda.

**Zortzigarrena.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea, eta erakunde autonomoi, Udal departamentuetako buruei, langileen ordezkariari eta eragindako langileei jakinaraztea.”

**II.-** 2015eko otsailaren 25ean egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu zituen, besteak beste:

**Zortzigarrena.-** Gema Garrastazu Letemendia andreak aurkeztutako errekurtsioa ezestea, “AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSIOEN ETA ARGIBIDE ESKAEREN ERANTZUN PROPOSAMENA, LORTUTAKO AKORDIOAK ETA AKATSEN ZUZENKETA” dokumentuan azaldutako arrazoiengatik, gradu pertsonalaren zatia izan ezik, horren zati bat onartzen baita, goiko dokumentu horretan azaldutako arrazoiengatik.

Ondorioz, honako hau adieraztea: Gradu pertsonalari dagokionez, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 15 eta 16 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Lanpostuen Zerrendan adieraziko da lanpostuari jarritako sailkapenari dagokion maila (1etik 30era), eta horrek “ad hoc” egindako prozedura bat behar du (hasierako onespena, jendaurrean jartzea, etab.). Gaur egun negoziazio fasean dagoenez udal antolaketa berriak behar duen lanpostu-zerrenda, lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen zeregina izango da erreklamatzaillearen eskaera aztertzea eta, hala badagokio, hura onartzea edo baztertzea.

**III.-** 1999ko maiatzaren 6an egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak onartu zuen, besteak beste, Zarauzko Udaleko eta bere Fundazio Publikoetako giza-baliabide plana, eta Gema Garrastazu Letemendia andreak “Liburutegiko arduraduna” lanpostua esleitu zitzaion.

**IV.-** 2012ko urriaren 31n egindako bilkuran Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen, besteak beste, ordainsariak egokitzea abenduaren 22ko 343/1992 Dekretura (Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Soldatei buruzko Dekretua aldatzen duena).

**V.-** Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 45. artikuluan honakoa xedatzen du:

1. Funtzionario guztiek izango dute bere gradua, lanpostuak sailkatzen direneko hogeita hamar mailetariko bat hain zuzen.
2. Dagokion mailako lanpostu bat edo gehiago bi urte edo gehiago jarraian edo hiru urte tartekak eginez betez eskuratzen da norbere gradua.

4. Ezingo da inola ere sendotu funtzionarioa sartuta dagoeneko Taldeari dagokion tartearen gehieneko mailaz goitiko norbere gradurik.

5. Funtzionarioa lanposturen baten ari dadin bitartean lanpostu horren maila aldatzen bada, hor izan den denbora lanpostu horrek izan duen sailkapen-mailarik handienez neurtuko da.

**VI.-** Hortaz, funtzionarioak indarrean dauden Euskal Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako 18 mailari dagokion gradu pertsonala errekonozitzeko baldintzak betetzen ditu, aurretik aipatu den epetik aurrera etenik gabe betetzen ari baita lanpostu hori.

Horiek horrela, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita eta Koordinazioko informazio-batzordeak (pertsonala) irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

#### ERABAKI DU

GEMA GARRASTAZU LETEMENDIA andreami Euskal Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako 18 mailari dagokion gradu pertsonala errekonozitzea.

### **10.- LANKIDETZA HITZARMENA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIN, ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROAN AURKEZTEKO**

30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua arabera, Administrazio Publikoari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak edozein administrazio-organotako erregistroan aurkez daitezke, dela Estatuko Administrazio Orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administrazioetakoak, dela probintzietako diputazioen, kabildeen eta uharteetako kontseiluen administrazioetakoak, dela apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 121. artikuluan aurreikusten dituen udalerrietako udaletakoak, dela gainerako Toki-Administrazioetako erakundeetakoak, betiere, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena sinatu bada.

Agindu hori betetzeko eta herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak errazteko, hitzarmen bat sinatzea proposatzen da, eta hitzarmen horren helburua izango da herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edozein organo edo erakunderi zuzendu nahi dizkieten agiriak Zarauzko Udalaren Erregistroetan aurkeztu ahal izatea, eraginkortasun osoz.

Hitzarmen horren helburua da, beraz, Zarauzko Udalaren erregistroetan aurkeztu ahal izatea EAEko Administrazioari eta haren mendeko edo hari atxikitako berezko nortasun juridikodun zuzenbide publikoko erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak.

Hitzarmen hau lau urtez egongo da indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatzen hasita. Dena den, hitzarmena beste lau urtetarako luzatuko da, baldin eta administrazio sinatzaileetako batek espresuki

kontraktorik adierazten ez badu hitzarmena amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago.

Horiek horrela, eta Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena egin ondoren, Udalbatza legez osatzen duten 21 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Zarauzko Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzeta-hitzarmen administratiboaren testua onartzea.

**Bigarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

### **11.- LANKIDETZA HITZARMENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN, FORU ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROAN AURKEZTEKO**

30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua arabera, Administrazio Publikoari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak edozein administrazio-organotako erregistroan aurkez daitezke, dela Estatuko Administrazio Orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administrazioetakoak, dela probintzietako diputazioen, kabildeen eta uharteetako kontseiluen administrazioetakoak, dela apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 121. artikuluan aurreikusten dituen udalerrietako udaletakoak, dela gainerako Toki-Administrazioetakoak, betiere, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena sinatu bada.

Agindu hori betetzeko eta herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak errazteko, hitzarmen bat sinatzea proposatzen da, eta hitzarmen horren helburua izango da herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren edozein organo edo erakunderi zuzendu nahi dizkieten agiriak Zarauzko Udalaren Erregistroetan aurkeztu ahal izatea, eraginkortasun osoz.

Hitzarmen horren helburua da, beraz, Zarauzko Udalaren erregistroetan aurkeztu ahal izatea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta haren mendeko edo hari atxikitako berezko nortasun juridikodun zuzenbide publikoko erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak.

Hitzarmen hau lau urtez egongo da indarrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita. Dena den, hitzarmena beste lau urtetarako luzatuko da, baldin eta administrazio sinatzaileetako batek espresuki kontraktorik adierazten ez badu hitzarmena amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago.

Horiek horrela, eta Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena egin ondoren, Udalbatza legez osatzen duten 21 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

**Lehena.**- Zarauzko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzeta-hitzarmen administratiboaren testua onartzea.

**Bigarrena.**- Alkate jaunari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

## **12.- “DESTINOS EUSKADI” ELKARTEAN SARTZEA**

DESTINOS PAIS VASCO irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, 2007ko abuztuaren 8an sortu zen, eta honako hauek osatzen dute: hiru euskal hiriburuk (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) eta Gipuzkoako kostako bi gunek (Irun-Hondarribia eta Zarautz). Helburua da elkarte osatzen duten helmugak turistikoki sustatzea eta dinamizatzea; izan ere, elkarteko kideek eskaintza turistikoa osagarria eta anitza osatzen dute, Euskadiko eskaintza turistikoa ikuspegitik begiratuta, eta, gainera formatu horrek aukera ederra ematen die elkartekideei euren eskaintzarekin merkatu eta publiko interesgarrietara heltzeko.

Bazkideek ordezkariak hauek dituzte elkartean: Bilbao Turismo, San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa, Servicio Municipal de Congresos y Turismo de Vitoria-Gasteiz, Agencia de Desarrollo del Bidasoa SA eta “Zarauzko Turismo Bulegoa” erakunde autonomoa.

2014ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen “ZARAUZKO TURISMO BULEGOA” erakunde autonomoa desagitea, 2014ko abenduaren 31ko ondorio-datarekin, eta horrek ekarri du erakundeak zituen hainbat akordio subrogatzea. Horien artean dago DESTINOS PAIS VASCO elkartean izaera juridiko horrekin zeukan partaidetza.

Kontuan Udalari interesatzen zaio elkarte horretan parte hartzen jarraitzea. Hori horrela, Turismoko informazio-batzordeak hala propositatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

**Lehena.**- Zarauzko Udala, Turismo Bulegoaren bidez, DESTINOS PAIS VASCO elkartean sartzea, eskubide osoko kide gisa, eta bere egitea elkartearen Estatutuetatik sortutako betebeharrak.

**Bigarrena.**- Alkate jaunari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.”



### 13.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

#### a) PSE-EE taldea: A8 autobidean, Zarauzko zatian, kutsadura atmosferikoa eta akustikoa murrizteko mozioa

Ondoren, PSE-EE taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

A8 AUTOBIDEAN, ZARAUZKO ZATIAN, KUTSADURA ATMOSFERIKOA ETA AKUSTIKOA MURRIZTEKO MOZIOA

ARRAZOIAK:

Azken hamarkadetan ibilgailuen trafikoa asko hazi da, automobil-parkeak gora egin duelako eta egungo gizarteak merkantzia-garraioaren behar handiagoa duelako. Trafiko horrek erregai-bolumen handia kontsumitzen du, eta, jakina, kutsadura akustikoa eta atmosferikoa sortzen du. Horrek eragin zuzena du errepide nagusien ondoan bizi diren herritarren bizi-kalitatean eta osasunean. Azterketa zientifikoen arabera, Alemanian **bihotzekoarekin** hiltzen direnen % 3 trafikoaren zarataren ondoriozkoak dira. Era berean, Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak (IARC), **Osasunaren Mundu Erakundeko** partaide denak, 2012an adierazi zuen nahiko ebidentzia argiak daudela adierazteko ihes-hodietako gasen eraginpean egoteak handitu egiten duela **biriketako minbizia garatzeko arriskua**.

Administrazioak badaki hori, eta debekatuta dauka zirkulazio-bide horien inguruan 50 metroko tartean eraikinak egitea. Horregatik aldatu zen, hain zuzen, Orokieta eskola berria eraikitzeko jatorrizko proiektua: autobidetik urrutiratzeko. Hala ere, Itxasmendi auzoa, Herrikosoro kalea, Azken Portu goikoa, Orokieta eskola zaharra, institutu berria eta La Salle ikastetxea autobidetik oso hurre daude eta trafikoaren ondorioak jasaten dituzte. Halaxe berresten dute txosten teknikoek ere.

Itxasmendi auzoan eta Azken Portu auzoan pantaila akustikoen metro batzuk jartzea izan da orain arte hartutako neurri bakarra; baina horrek ez dio irtenbiderik ematen kutsadura akustikoaren arazoari, eta ez dio aurre egiten, ezta ere, A8 autobideak sortutako kutsadura atmosferikoaren arazoari.

Europako esparru-proiektuetan egindako ikerketek ere adierazi dute abiadura moteltzeak zuzenean eragiten diola kutsadura akustikoari. SILENCE proiektuak frogatu zuen Bristol-eko M32 hiri-autobidearen inguruetan dauden bizitegi-erakinetako fatxadetan 3,5 dB(A) murrizten zela zarata, baldin ibilgailuen batez besteko abiadura 113 km/h-tik 65 km/h-ra jaisten bazen ('Road Traffic Flow' azpiproiektua).

Beste ikerketa batzuek adierazten dute hiriak inguratzen dituzten autobideetan erregai-kontsumoa ia % 30 murriztu ahal dela (eta ondorioz, kutsadura atmosferikoa ere bai), baldin abiadura-muga 120 km/h-tik 90 km/h-ra jaisten bada.

Herritarrek bizi-kalitatea hobetzeko egiten dituzten eskaeren berri ematen du Zarauzko PSE-EEK, eta Udalbatzarrari ondorengo mozioa proposatzen dio, onar dezan:

#### MOZIOA

Zarauzko Udalak Bidegiri, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari eskatzen die ondorengo neurriak garatu ditzatela, bakoitzak bere eskumeneko arduren baitan:

1. Abiadura-muga 80 km/h-ra jaitsi dadila Itxasmendiko ordainlekutik Frantseskuako zubiraino, eta 100 km/h-ra Azken Portu auzoraino. Aldaketa eraginkorra izateko honako hauek eskatzen ditugu: seinaleak aldatzea, informazio-kanpaina bat egitea eta behar den zaintza jartzea.
2. Azterketa tekniko bat egitea, egungo asfaltoa kendu eta horren ordez errodadura-zarata baxuko bat jartzeko.
3. Itxasmendi auzoan pantaila akustikoak jartzea, Frantseskuako zubiraino.

Proposamena bozketan jarrita, Udalbatza legez osatzen duten 21 kideek baiezko botoa eman diote. Beraz, Udalbatzarrak transkribatutako proposamena onartzea ERABAKI DU.

#### EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK AT

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA eta bilkurakide gehienek presazkotzat hartu ondoren, aztergai hau aztertu dute:

#### **– TAO-REN KUDEAKETA ZERBITZUA. OTA ZARAUTZ SL ENPRESARI KONTRATUA LUZATZEA, ESLEIPEN BERRIA EGIN ARTE**

2006ko irailaren 6an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak GERTEK SOCIEDAD DE GESTIONES Y SERVICIOS SA enpresari esleitu zion BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ZERBITZUA kudeatzeko kontratua. Kontratua 2006ko irailaren 26an sinatu zen.

2012ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak kontratu hori aldatzea eta luzatzea onartu zuen, bai eta 2007-2011 urte bitarteko likidazioa egitea ere. 2011 urteko likidazioa, baina, behin-behinean onartu zen.

Bestalde, 2013ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespena eman zion ZARAUTZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA berriari.

2013ko urtarrilaren 9an, berriz, GERTEK SA enpresak Zarauzko Udalarari jakinarazi zion OTA ZARAUTZ SL sozietatea sortu duela, hain zuzen ere, Administrazio Klausula Zehatzen agiriko hogeita bigarren puntuan jasotakoa betetzeko.

2013ko maiatzaren 20an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak hauek onartu zituen, besteak beste: kontratua aldatzea, likidazioa egitea, prezioak berrikustea eta kontratua 2014ko irailaren 26ra arte luzatzea.

Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordearen 2015eko martxoaren 3ko bileran adierazi da zein arrazoi egon diren emakida berriaren kontratua lehenago ez hasteko.

TAO zerbitzuaren kudeaketa behar-beharrezkoa eta interes orokorrekoa da, trafikoaren eta aparkalekuen antolaketan duen eraginagatik.

Udaleko idazkari nagusiak, Kontratazio teknikariarekin batera, eta kontuhartzaileak txosten bana egin dute, Kontratua luzatzeko proposamenaren alderdi juridikoei buruz. Bertan, luzapenaren kontrako irizpena eman dute.

Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz,

#### ERABAKI DU

OTA ZARAUTZ SL enpresari TAOren kudeaketa kontratua luzatzea, esleipen berria egin bitartean eta gehienez ere 2015eko abenduaren 31 arte.”

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarrak hogeit gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.